

_elkarrizketa:

JOSU ARTETXE >
"Eskaladan aritzeko
baliabide gutxi dago
Aiaraldean" 12.or



Jendartea

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen ekitaldi ugari 3. or.

Amurrio

Saratxoko saihasbidea berriro Biltzar Nagusietan eztabaidagai 10. or.

Kultura

Ikuskizun berria estreinatuko du Aiara Dantza taldeak 10. or.

Jendartea

HIESA: Azken hamarkadetan asko aldatu den gaixotasuna 7. or.

Iritziak:

NORBERTO ALDAITURRIAGA 2. or.
ITZIAR LARRAZABAL 6. or.
INMA ROIZ 10. or.
JON MUÑOZ 11. or.
IÑAKI ISASI 13. or.
AINHOA COMAS 16. or.

aiaraldea



Aiaraldeko hamabostekaria
2014 /// Azaroak 20 ///
OSTEGUNA
23. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

RGI-DBE: Diru-sarrerak bermatzeko errentaren aurpegiak

1.125 aurpegi ditu Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak Aiaraldean. 1125 familiek jasotzen dute hilero Lanbidek ematen duen diru-laguntza hori, oinarritzko beharrianak asetzeko. Lanbidek eskainitako datuen arabera, perfil ezberdinak topatu daitezke ja-

sotzaileen artean. Emakumezkoak dira gehiengoa, eta Estatu Espainiarrean jaio-takoak. Badaude krisiagatik lanik gabe geratu direnak, edota langabeziaren dirurik gabe geratu direnak ere, edo duten lanarekin familia mantentzeko behar beste ira-

bazten ez dutenak ere. RGI-DBEa jasotzen dutenekiko dagoen estigma dela eta, askok ez dute publiko egiten laguntza jasotzen dutenik. Diru-laguntza hori jasotzen duten hiru aiaraldear elkarrizketatu ditugu, RGI-DBEaren jasotzaileei aurpegia jartzeko.



"Laguntza psikologikoa jaso behar izan nuen laguntza eskatzearen pausoa emateko"

"Orain lan txiki bat daukat, eta irabazten dudanaren osagarri gisa jasotzen dut RGIa"



"Ez da bizitzeko diru bat, bizirauteko baizik. Etorkizun latza ikusten dut"



Anuntxi Arana luiaondoarrak jasoko du aurtengo Argizaiola Saria



Durango Azokan banatzen den Argizaiola saria aiaraldear bati emango diote aurtengoa. Anuntxi Arana antropologari, Euskalgintzaren, antropologiaren eta emakumeen eskubideen aldeko borroka egin duen lanagatik sarituko dute.

Luiaondokoa den arren, gaur egun Angelun (Lapurdi) bizi da Arana, eta guztira sei lan argitaratu ditu bere ibilbidean zehar. Euskal Herriko tradizioen eta mitologiaren ingurukoak dira egin dituen ikerketak, eta ezagunena Orozkoko mitologiari buruz egin zuena izan zen: "Orozko Haraneko kondaira mitikoak, bilduma eta azterketa". 200 kontakizun inguru bildu zituen lan horretan. 11.or

ENPRESA HAZITEGIAK: Eskualdeko ekintzaile eta proiektuen zain dauden azpiegitura eta zerbitzuak. 6 or.

DURANGOKO
AZOKA 49
kulturaren plaza

2014ko abenduaren 5etik 8ra
www.durangokoazoka.com

[f](#) [t](#) @durangokoazoka



_iritzia



NORBERTO
Aldaiturriaga
PARLAMENTARIA

_Leihotik

Berdintasun eza

Krisi ekonomikoaren ondorioz agerian geratzen da lehendik ere gure gizartean zegoen desberdintasun ekonomiko eta soziala. Baina ez hori bakarrik: desberdintasun hori, egunetik egunera, zabalagoa eta sakonagoa da.

Berdintasun ezak arazoak dakartzio gizarteari, eta horrek denok kezkatzen gaitu. Baina kontua ez da arazo horiek deskribatzea bakarrik, konponbideak eskaintzea baizik.

Azken 30 urteetan Euskadiko per capita errenta ikusgarri handitu da, Alemania, Frantzia edo Danimarkaren pareko mailetara iristeraino.

Hori garrantzitsua da. Baina garrantzitsuena da errenta hori nola banatu den. GINIren koefizientea erabiltzen da herrialde baten baitako desberdintasuna neurtzeko. Koefiziente hori 0 eta 1 arteko zenbakia izaten da, berdintasun eta desberdintasun perfektuak adierazten dute, eta bider ehun egiten da. Bada, 1986tik 2012ra Euskadin GINI indizea 28tik 25era jaitsi dugu. Gogoratu dezagun Suediak 24 daukala, eta espainiar batz bez-tekooa 30etik gorakoa dela.

Egoera honetara iristea posible izan da Euskadin autogobernuak egoki aplikatzeko egindako lan eskergagatik, eta gainera, horren ondorioz sortu da Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema. Sistema horrek 400 milioi euroko urteko aurrekontua dauka, eta onuradunak dira diru-sarrerara txikien jasotzen duten herritarren %20a.

Horregatik, tarteka marteka, komeni da gogoratzea Euskadin azken 30 urteotan egindakoa, baita gizarte-kohesioaren inguruan beste batzuk dena suntsitzen ari ziren bitartean.



Alazne
Irakaslea

Nik uste dut ondo daudela. Abiaduraren kontrola izateak neurri batean istripuak murriztea dakarrelako, baina ez lirateke ezkutatuta egon beharko, agerian baizik. Piztuta dauden edo ez ere jakin beharko genuke. Gaur egun radarrak ez daude oso leku ikusgarrietan jarrita.



Adela
Gaztaina saltzailea

Nik uste dut dirua biltzeko erabiltzen direla, istripuen prebentzioarako baino. Normalean radarrera iristean frenatu egiten dugu, gero berriz abiadura hartzeko. Normalean radarrak edozein lekutan jartzen dituzte. Badaude leku desegokietan jarritakoak. Luiaondon autoarekin ere jartzen dira, geldirik egotea debekatua dagoen toki batean.



_GALDERA

Zer iritzi duzu trafiko radarren inguruan? Istripuak ekiditeko balio dute?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita.

BIDEOA WEB-GUNEAN



Iñigo
Komertziala

Duela gutxi niri radar batek harrapatu ninduen, Orozkotik nentorrela. Beheranzko aldapa bat zen, eta konturatu orduko 50 kilometro orduko abiadura gaunditua neukan.

Egia da askotan presarekin goazela. Baina beti abisatu beharko litzateke radarraren presentzia, horrela gidaria geldoago lehenagotik joateko.



Carlos
Kamioi gidaria

Auto edo kamioiekin gabiltzanor dirua lapurtzeko modu bat iruditzen zaizkit radarrak. Istripuak prebenitzeko ere balio dute, baina ez-kutuan jartzen dituztenean jende errugabea harrapatzen dute. Orozkokoan, adibidez, jendea hortik pasatzen da eta radarrak harrapatu egiten ditu.



Ainhoa
Ikaslea

Nik uste dut radarrak badirela dirua ateratzeko modu bat, baina askotan ondo dator ikustea abiadura jaitsi behar duzula. Istripuak saihesteko ez dago horren txarto radarrak egotea; baina dirua ateratzeko ere balio dute, hori beti. Radarrak agerian egon beharko liratekeela uste dut, badakit izkutuan batzuk badaudela.

_gutunak

Vitoria errepideko zuhaitzak

Luis Maria Ria

Zuhaitzak naturarekin eta osasunarekin erlazionatzen dugun sinboloetako bat dira. Betidanik izan dira zuhaitzak bizitzarentzako funtsezko. Euren fruituak eta egurra ematen dizkigute.

Urduñako Vitoria errepideko zuhaitzen mozketak galerak ordainezin bat suposatzen du. Min egiten digu horren izaki bizidun garrantzitsu eta adierazgarriak kontuan ez edukitzea. Egia da platanoak direla eta ez dutela zuhaitzak euskal kulturaren duen tokiko garrantzi sinbolikoa. Baina horregatik ez dio zuhaitz bat izateari uzten, zuhaitz bat izateak dakarren guztiarekin, ez dela gutxi. (...) Zibilizazioaren eta ingurugiroaren arteko borroka etengabe eta amaigabea, berriz ere zibilizazio kontsideratzen dena gailentzen da. Naturaren aurreran berriz ere irabazi du asfaltoak, autoak eta presak. Ezingo litzateke trafikoa semaforo bidez erregulatu? Gehiago axola zaigu garaiz iristea paisaiaz gozatzea baino? (...) Pentsatu da Urduñara errepide lasaiez gozatzera datozen txirrindulariengan? (...)

Pena eta haserrea sentitzen dugu naturarekiko mespretxu honengatik, ondare usurpazio honengatik, eta urduñako hiritar guztiekiko sentsibilitate faltagatik.

Ados

Aitor Lexartzeta (Arrankudiagako Emai)

Arrankudiagako Ernai gazte antolakundeak hurrengo irakurketa egiten du pasa den azaroaren 2an Arrankudiaga-Zollon egin zen Euskal Herriko subiranotasunari buruzko galdeketa inguruan:

Lehenik eta behin, Ados plataforma zoriondu nahi dugu, eta eskerrak eman eginiko lanagatik, lan gogorra eginda eta traba guztiak gaundituta, arazo batik lotu dutelako galdeketa egitea eta Arrankudiaga-Zolloko biztanleek egun historiko horretan era demokratiko batean euren etorkizunari buruz duten iritzia argi uztea.

Zoriontzekoa da ere biztanleen erantzuna, argi utzi dugulako zein den gure nahia, eta gainera ziletasuna eman diogulako galdeketa, aukerarik eman gabe kritikatzeko, era demokratikoan eman baitugu biztanleok (biztanle guztien ia % 62) gure iritzia. Gureari dagokionez, gazteria ere zoriondu nahi dugu, hauteslekuan erakutsi duen konpromisogatik, gazte gehienak joan baitziren bozkatzera eta, ez bozkatzera bakarrik, egunean zehar lan handia egin baitzuten gehienek. Horregatik ere zoriondu nahi dugu plataforma, herria aktibatzea lotu duelako, baita herrian interesa eta ilusioa piztea ere. **Osorik irakurgai:** <https://www.aiaraldea.com/erabiltzailea/iritzi-gutunak>

Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Tirada:

10.000 ale.

Maiztasuna:

Hamabostekaria

Lege gordailua:

BI-1230-2013

Erredakzioa:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.com

agenda@aiaraldea.com

agurrak@aiaraldea.com

Publizitatea:

publizitatea@aiaraldea.com

Tlfnoa: 669 83 57 87

Web-gunea:

www.aiaraldea.com

Helbidea:

Nerbio Kalea 1, 3. esk.

Laudio. Araba. 01400

Telefonoak:

Tel: 94 656 85 54

Tel: 688 848 152

ERREDAKZIO OHARRA:

Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



CuadraBus

Zankueta Poligonoa z/g -
01468 Amurrio, Araba.
Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com



Graf!k Koop.

Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com



JEZ Sistemas Ferroviarios

Arantzar, z/g - 01400 Laudio (Araba) Tel.: 946 721 200
Fax: 946 720 092 infor@jez.es



ausolan

Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com



_herriz herri

Aiaraldea

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko eskualdea sustatuko dute



Emakumeen aurkako indarkeriaren salaketa hamaika ekimenetan adieraziko da eskualdean. Argazkia: aiaraaldea.com

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez Ibarrola

Azaroaren 25ean Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko nazioarteko eguna izango da. 1999an izendatu zuten eguna Nazio Batuen Asanbladan Mirabal ahizpa dominikarrak gogoratzeko, diktaduraren aurkako ekintzaileak izateagatik Trujillok hiltzea agindu zuen eta.

Egun, hitzordu garrantzitsua da eskualdeko hainbat herrietan, eta udalen zein elkarte eta emakume taldeen elkarlanari esker antolatzen dute: Matxintxu, Sorgin Moreak, Solastiar, Adi, Avillo, Mugalde, Aurreraka, Biok... asko dira ekin-tzak proposatzen dituzten taldeak.

Indarkeriaren aurpegiak

Emakumeen aurkako indarkeria aipatzen denean burura etorri ohi da muturreko adibidea; hau da, bortizkeria fisikoa. Errealitate hurbil horrek aurten bere isla izan du epaitegietan, Amagoia Elezkanoren hiltzaileari 20 urteko kartzela zigorra ezarri diote eta.

Baina indarkeria mota gehiago ere badaude eta Azaroaren 25aren harira antolatzen diren ekintzetan adierazpen ezberdin horiek ere azpimarratzen eta lantzen saiatzen dira. Batzuk sumatzeko zailagoak dira, ez baitira bistakoak. Azaroaren 12an, adibidez, Laudion emakumeek kartzelari lotuta pairatzen dituzten hainbat egoera salatu zituzten.

Beste bortizkeria eredu batzuk, berriz, normalizat jo eta ohituraren poderioz erabat ikusezin bilakatu dira. Herrietan prestatutako hitzaldi eta tailerretan indarkeria mota horiek antzeman eta aurre egiteko tresnak eskaini nahi dituzte: Artziniegako Museo Etnografikoan azaroaren 24an 18:00etan

gazte harreman heterosexualen inguruan arituko da Norma Vazquez, eta Laudion Diana Ibargutxik eta Raquel Font psikologo klinikoek bikote harremanetan eman daitezkeen abusu afektiboak azalduko dituzte gaur eta etzi.

Baina hitzaldiak ez ezik, beste ekintza mota batzuk ere prestatu dituzte. Umeei emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako mezua helarazteko eta Azaroaren 25ean parte hartu dezaten ipuinkontalaria egongo da bihar Lamuza Ikastetxean: "Uxue eta Aimar", hain zuzen. Amurriónazaroaren 24an "Denok bortizkeriaren aurka" VIII. Marrazki lehiaketaren sari-banaketa izango da 18:00etatik 18:30era Kultur Etxean.

Hitzaldi, tailer eta lehiaketez gain kultura eskaintzak ere tartea izango du azaroaren 25aren inguruan: genero eta sexualitatea nola landu diren dokumentalean jakiteko Nuria Lopez Torres-ek hitzaldia emango du Arespalditzako Udaltxean azaroaren 21ean 19:30ean.

Toti Martinez de Lezea

Toti Martinez de Lezea idazle ospetsua Artziniegan arituko da "Lurraren memoria" ikuskizun musikatuari eskaintzen.

Antzerkiak ere egingo dituzte azaroaren 25ean Urduñako Kultur Etxean "Un mundo ivaginario" 18:00etan eta Luiaondoko Gizarte Etxean 21ean "Prest gaude" 19:30ean.

Zentzu berean hainbat film ikusteko parada emango dute: azaroaren 29an "Loreak" egongo da Laudion; eta "Agua" pelikula eskainiko dute Amurrio Antzokian eta Orozkoko Donibane Aretoan.

EGITARAUA

AZAROAK 21

- **World Kafe**, Amurrioko Gazteleku, 17:30ean
- **Ipuin Kontalaria**, Audioko Lamuza Ikastetxea, 17:30ean
- **Hitzaldia, genero eta dokumentalismoa**, Nuria Lopez Torres Arespalditzako Udaltxea, 19:30ean
- **Antzerkia, "Prest gaude"**, Luiaondoko Gizarte Etxea, 19:30ean

AZAROAK 24

- **"Noviazgos violentos"** hitzaldia, Artziniegako Museo Etnografikoa, 18:00etan

AZAROAK 25

- **Euskal idazlea, zinema, bertsolariak...** Audio Institutua, 09:00etan
- **Zintarria jarriko du Hiriska elkarteak**, frontoia, Artziniega, 12:00etan
- **Kontzentrazioa**, Aiaraoko udaltxea, 12:00etan
- **Elkarretaratzea**, Juan Urrutia Plaza Amurrio, 18:30ean
- **Kontzentrazioa** okindegi ondoan, Okondo, 18:30ean
- **"Lurraren memoria"**, Toti Martinez de Lezea, Artziniegako Museo Etnografikoa, 19:00etan
- **Kontzentrazioa**, Zubiaur Plaza Orozko, 19:30ean
- **"Agua"**, Amurrio Antzokia, 20:00etan
- **Emakumeentzako defentsa pertsonala**, 20:00etan, Amurrio Meyiro Sport

AZAROAK 26

- **"La importancia de llamarse Jon o Jone"** Okondo, 12:00etan

AZAROAK 28

- **"Las voces. A pesar de todo la vida hay que vivirla"** irakurketa antzeztua, Okondo Eskola 19:00etan

Ekitaldi guztien berri web-gunean topatuko duzue



Markixana eta Basaurbeko ur araztegiak kolokan

ERREDAKZIOA |

Aitor Aspuru

Hedabideek zabaldu dute Javier de Andres Arabako Ahalduen Nagusiak adierazi duela Basaurbe eta Markixanako araztegiak eraikitzeke lursailak erosteko prest ez dagoela. Guztira 1,2 milioi euro inguru bideratu beharko lituzke aldundiak, inbertsioaren erdia. De Andresen ustez, 1994. urtean egindako akordioak ez du esaten Arabako Foru Aldundiak lursailak erosi behar dituela.

Basaurbe eta Markixanako araztegien helburua Goi Nerbioko urak garbitzea da, hainbat puntutan errebara garbitu gabe isurtzen baitira.

Espainiako Gobernuak konpromisoa hartu du, eta dirua bideratuko du lan horietara, baina 2015ean hori gauzatzeko lursailen desjabetzeak ahalik eta lasterrren egitea beharrezkoa da.

URA agentziak desjabetzeek suposatzen duten inbertsioaren erdia ordaintzeko prest dagoela iragarri du. Zehazki, 20 milioi euro balioko du araztegi bakoitzaren eraikuntzak. Bi araztegi direla aintzat hartuta, 40 milioi euro balioko lukete.

Turismo arduratsu eta jasangarria bultzatuko dute

ERREDAKZIOA |

Aitor Aspuru

Aiarako Koadrilak turismo arduratsu eta jasangarria sustatu nahidu eskualdean. Arabako Foru Aldundiak herrialdeko zazpi koa-drilekin kontzeptu horretan sakondu nahi du eta laster hiru tailer praktiko deituko ditu Aiara.

Asmoa sektorearen garapena ziurtatzeko turismo arduratsu eta jasangarriaren irizpideak jarraitzea da. Horretarako biler egin dute eskualdeko hainbat eragilek Agrotavel enpresako ordezkari batekin. Arespalditzako bilera horretan ekoizleak, landetxe jabeak, teknikariak; Aiara, Okondo eta Audioko alkateak eta Eder Sanchez Aiara lur erakunde-ko lehendakariak hartu zuten parte, besteak beste.

Turismo arduratsu jasangarriak eta soziokultura, sozioekonomia, ingurumena, tokiko ekoizleak, energia eta hondakinen kudeaketa zorrotza bultzatzea izango dute helburu, besteak beste.

Etorkizunerako apustua dela uste du Agrotavelek, horregatik, tailer praktikoak antolatu eta gidatuko dituzte.

Udazkeneko multimedia eskolak, tailer eta solasaldiz lepo



Ekintzen artean airezko grabaketak egiten ikasteko tailerra egingo dute.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Aiaraldea Komunikazio Leihoak Udazkeneko Multimedia Eskolak antolatu ditu laugarrenez. Gaur bi ekitaldi egongo dira: "Musika taldeentzat multimedia plataformak" eta "berTXIOsaio musikatua". Lehena 18:30ean izango da Amurrioko AEKn, eta bigarrena 20:00etan Audioko Zubiaur kalean. Kantuan Miren Amuriza, Oihana Bartra eta Ander So-

lozabal ariko dira eta musikari gisa Igor Arzuaga eta Txema Isasi. Bestalde, ikastetxeetako multimedia rallyen bidez 120 gaztek argazkigintzan, bideogintzan, zinemagintzan eta streaming emaldietan trebatzeko aukera izango dute. Tailerrak, aldiz, larunbatean egingo dituzte. Ikastaroetarako izen-ematea umeaiaraaldea.com webgunean egin behar da.

_herriz herri

Aiaraldea



Euskararen alde ekitaldi asko egingo dira. Argazkia: Aiaraldea.com

Abenduak 3, euskara plazara ateratzeko deia

ERREDAKZIOA | Angela Rico Herrera

1995ean Eusko Jaurilaritzak eta Euskaltzaindiak bat eginik, Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu egin zuten. Harrezgero, Euskal Herrian ez ezik, munduko beste hainbat txokotan ere ospatzen da euskararen erabilera sustatzeko asmoz.

Hala ere, abenduaren 3a euskara kalera ateratzeko eta aldarrikatzeko data da. Asmoa ez da soilik euskararen iraupena ospatzea, baizik eta bere garrantzia eta oihartzuna urrunago erama-

tea. Egun horretan kalean, lanean, saltokietan, ikastetxetan, lagunaren artean edo erakundeetan euskaraz mintzatzeko eskubidea plazaratzeko aukera baliatuko dute. Euskararen jakintza soila gainditzea da helburua, praktikan gizarte euskalduna abian jartzeko.

Okondon, adibidez, abenduaren 2an merkatariekin euskararen erabilera sustatzeko dinamika aurkeztuko dute. Ospakizunari jarraiki eskualdeko udalek eta hainbat elkartek abenduaren 3rako

egitarau zabalaprestatu dute ekitaldi bereziak antolatuz.

“Euskararen argia”

Urduñan, Laudion eta Amurrión “Euskararen argia” ekitaldia gauzatu dute irizpide berdinak jarraituz. Horrela, herriko plazetan, gaua heltzean kriseiluek bereganatuko dute protagonismoa, parte hartzaileek kriseilu bana eramango dute eskutan figura ezberdinak eratzen dituzten bitartean. Ekitaldia musikaz lagundua egongo da eta bi abesti kantatuko dira, Bernat Etxepareren Kontrapas eta Euskal Herriaren Euskaraz. Antolatzaileek herritar guztiei helarazi nahi diete ekitaldietan parte hartzeko gonbidapena, euskararen gainean arreta deitu ahal izateko. Amurrio eta Laudion euskaraz idatzitako liburu baten irakurketa publikoa egingo dute, ehunka ikasleek parte hartuko dutelarik. Laudion Latorro ikastetxeak egun osoan zehar ikuskizuna prestatu ez ezik, hainbat ekintza ere antolatu ditu euskaraz.

Hala ere eskualdeko herri guztiek prestatu dituzte hainbat ekitaldi. Umeekin bereziki: Etxaurren Ikastolak astebeteko egitaraua landuko du, Okondoko eskolan ere jolasak egingo dituzte, Orozkon ere abenduaren 12an ospatuko duten jaian inplikatu nahi dituzte herritarrik, Artziniegako ikastetxean tailerrak izango dituzte, Amurrioko Ikastetxe guztiek hainbat ekimen gauzatu dute, Arrankudiaga Zollon euskal produktuen katalogoa umeen artean banatuko dute...

Saratxoko sailhesbidea berriro Biltzar Nagusietan

ERREDAKZIOA |

Etxaurren Martin Gordaliza

Arabako Foru Aldundiak Saratxoko errepidearen eraikuntza dela eta zenbait lan egin ditu dagoeneko, esate baterako gas eta elektrizitatearen zenbait azpiegiturak bideratzea.

Atzo, EAJ, Bildu eta PSE-EE alderdiek mozioa aurkeztu zioten Arabako Aldundiari -Biltzar Nagusien bitartez- Saratxorentzat prestatuta dagoen proiektuan aldaketak egin ditzan. Eremuan eragin txikiagoa lortzea bilatzen dute. Horrez gain, proiektu berriak Amurrioko Udalak eta Saratxoko Administrazio batzarrak eskatzen dutenarekin bat egin beharko luke.

Hasiera batean jeltzaleek aurkeztu zuten ekimena eta Bildu eta PSE-EEk EAJren eskakizuna babestu dute edukiak gehitu ostean. Bilduk errepidea ahalik eta lasterrren egitea nahi du, baina horretarako ezinbestekotzat jo du jasangarritasun irizpideak aintzat hartzea Saratxo herriari, ingurugiroari eta inberstioari dagokionez.

Babes zabal horren ondorioz onartu egin dute eskakizuna. PP bakarrik agertu da aurka. Zentzu bera daukan bigarren mozioa da hori, Biltzar Nagusiek beste bat onartu baitzuten martxoan. Hala ere, Arabako Foru Aldundiak ez du edukiak eskatzen zuena bete.

Amurrio

Irisgarritasun plana egiteko diru-laguntza eske

ERREDAKZIOA |

Amurrioko Udalak irisgarritasun plan berria nahi du. Horretarako diru-laguntza eskatu dio Eusko Jaurilaritzari, egitasmoa garatzeko. Udalak egindako azken irisgarritasun plana 2001. urtean idatzi zuen eta bertan jasotako hainbat neurri gauzatu ditu dagoeneko erakundeak. Plan berriak garraioa-aparkeluak, kaleak edo autobus geltoki berriak- jaso ez ezik udalaren eraikin guztiak ere ikertu beharko lituzke. Kiroldegia, udaletxea edo musika eskola, adibidez. Baina horiez gain, Batzar Administrazioaren eraikinak ere aintzat hartu beharko lituzke irisgarritasun plan berriak.

Landaburu 37 eta 38 zenbakietan lanak hasiko dira

ERREDAKZIOA |

Amurrioko Udalak Landaburu 37 eta 38 zenbakien inguruak berriro obrak esleitu ditu. Lanak Grupo Campezok egingo ditu eta 46.565,64 euroko inbertituko dira hezetasuna eta ur putzuak kentzeko, irisgarritasuna hobetzeko espaloia zabalduz eta eraikinaren atzealdea asfaltatzeko.

Arrankudiaga

LOMCE, Indarra eta Kataluniaren inguruko akordioak lortu dituzte udalbatzan

ERREDAKZIOA |

Aitor Aspuru Saez

Azaroaren 13an egindako Udal Osoko Bilkuran Arrankudiaga-Zollon Indarra futbol taldeari buruzko bi gai jorratu zituzten zinegotziek. Klubarekin sinatuta dagoen hitzarmena luzatu dute, zenbait kontu eguneratuz. Bestalde, futbol zelaia alokatzeko baldintzak aldatu zituzte eta aurreantzean bere alokairua merkeagoa izango da.

Politikari zuzenean lotutako hiru gai landu zituzten udalbatzan. Batetik, LOMCE-ren aurkako bi mo-

zio onartu zituzten. Bilduk eta EAJk aurkeztu zuten bana eta aho batez onartu zituzten. Bilduko testuak LOMCE legearen eragina bertan behera uztea eskatzen du, EAJrenak ahal den neurrian bere eragina mugatzea proposatzen duen bitartean.

Adostasun osoa egon zen politikarekin lotutako beste bi mozioetan, Kataluniako prozesu burujabea eta Sopuertako gurasoen eskaera babestuz. Azken horiek herriaren lehen hezkuntza eskaintzea nahi dute, haurreskola bakarrik baitute.

Aiara

_Iruditan



Añeseko erroten jai eguna izan zuten larunbatean. Maroñon landatutako garia irindu zuten antzina egiten zen moduan. Horren ostean askaria eskaini zuten antolatzaileek. Argazkia: Zuriñe Alava

Luiaondo hilero garbitzeko zerbitzua abian

ERREDAKZIOA |

Luiaondoko batzorde administratiboaren lehendakaria Gentza Alamillok hedabidetan iragarri du hilean behin Luiaondo garbituko duen zerbitzua kontratatu dutela, bi pertsona hain zuten. Makina garbitzailea erabiliko dute. Gune urbanizatuetan jarriko dute arreta berezia. Gentza Alamilloren hitzetan herriak zuen gabezia zuzentzea da helburua, orain arte noizean behin garbitzen baitzuten Luiaondo. Aurrera begira, beharren arabera hausnartuko dute erabaki gehiago hartu edo ez.

_herriz herri

Laudio



Herritarrei asanbladetan parte hartzeko eskatu diete. Argazkia: aiaraaldea.com

Auzo batzarrak abenduan “Laudio hobeago baten alde”

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Udalak antolatzen dituen auzo-batzarren edizio berria egingo da, udalerrian bizi diren auzo ezberdinetako auzotarren parte hartzea bermatzeko asmoarekin. Udalak herriko auzokide eta herritarrek

animatu nahi ditu batzar horietan parte hartzera.

Era berean, batzarretan, bertaratzen diren herritarrek, euren kezak, zalantzak, ekimenak, iradokizunak edo proposamenak aur-

keztea espero da; horien bitartez, auzo bakoitzean zein udalerr osoan, azpiegiturak, ingurumena, zirkulazioa, segurtasuna, azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzeko urratsak eman daitezten.

Herritarrek parte hartu dezaten Udalak doako haurtzaindegiz zerbitzua eskainiko du. Interesdunek telefono zenbaki honetan egin beharko dute erreserba: 944034850. Erreserbahiruegun lehenago egin beharko da.

Bileren datak eta orduak

Auzo asanblada guztiak 19:00etan izango dira. Arraño-ko bilera abenduak 2an egingo dute plazako balio anitzeko aretoan. Gardeakoa, berriz, abenduak 3an, asteazkenez, bertako Gizarte Etxean egingo dute. Nekazal eremuko auzo asanblada, abenduak 4ean gauzatuko da Plazako balio anitzeko aretoa. Ugarteoko abenduak 15erarte itxaron beharko dute, 19:00etan elizan bilduko direlarik. Latio-rrakoa, abenduak 16an, asteartez, izango da, 19:00etan Latio-rrakoa ikastetxean eta Larrazabalgo auzo asanblada abenduak 17an, 19:00etan, Toki On jate-txean egingo dute.

“Legeagintaldiko obra garratzitsuena” hasi da Maestro Elorza kalean eta tren geltoki inguruan

ERREDAKZIOA |

Maestro Elorza Kaleko saneamendua, tren geltokiko irisgarritasuna eta Latio-rrakoa tunelaren zabalera 2 metrotik 7,5 metrotara hobetuko dituzten lanak abiatu dituzte.

Hiru zuhaitz moztuko dituzte inguruak egokitzeko eta lehen fasearekin diote. Hala, saneamendu sareak hobetuko dituzte tren geltokiaren plazaren inguruan. Horretan arituko dira abendua heldu

arte. Kanalizazioak egin eta itxi beharko dituzte eta hurrengo faseetan Maestro Elorza eta Zubiko Kurajo kaleetan gauza bera egingo dute. Latio-rrakoa tunela urtarilaren 8an itxiko dute. Tunelean egingo diren obren ekintzez ondorioz Renfeko 4 eta 6 trenbideak moztuko dira otsailean. Hilabete horretan 1 eta 2 trenbideak erabiliko dira, baina martxoan kontrakoa gertatuko da; 1 eta 2 trenbideak ez dira erabiliko eta 4 eta 6 ordea bai.

Laudioko gazte eguna egingo dute larunbatean

ERREDAKZIOA |

Txabi Alvarado Bañares

Laudioko Gazte Asanbladak egun osoko egitaraua antolatu du larunbaterako. Goizean umeentzako jokoak, tailerrak, herri azoka... egongo dira. Eguerdian bazkaria egingo dute eta arratsaldean manifestazioa, herri kirolak eta hainbat kontzertu. Batzuk kalean izango dira eta 22:00etik aurrera “Esne Potak”, “Enkore” eta “3gabe2” erromeria izango dira Gaztetxean.

Urduña



Hautsak harrotu ditu zuhaitzen mozketak

ERREDAKZIOA |

Bizkaiko Foru Aldundiak Gasteizerako errepideko aldeetarikoa batean izandako zuhaitz mozketa ezinegon sortu du Urduñan. Herritarrek sare sozialetan azaldu dute haien haserre, Barrerillara doan bidean hainbat bananondo kendu baitituzte. Udalaren kudeatzaileak, EH Bilduk azalpenak emanditu, “nahiz eta arduradunak ezizan”. Adierazi dutenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakia izan da zuhaitzak mozte, Ingurumen Sailaren baimenarekin. “Aldundiaren ustez, zuhaitzen erroek eta tamainak kolokan jarri dute errepidearen segurtasuna, eta Ingurumen Sailak, bananondoei balio ekologikorik ematen ez dionez mozketa baimendu du”, argitu dute.

Artziniega

Hiriskaren azokak Iñigo Jimenez lagunduko du

ERREDAKZIOA |
Unai Gotxi

Aurten, Hiriska emakume taldeak antolatutako azokaren etekinak Artziniegako gazte batentzat izango dira. Tratamendu garestiko gaixotasun arrarobateko detektatu zioten, konplikazio neurologiko eta distoniak eraginez. Terapia ezberdinak jasotzen dabil eta epe laburreko ikerketen emaitzen zain dago. Azoka azaroaren 29tik abenduaren 8ra egingo dute Artea erretiratuaren egoitzako areto nagusian.

Txarriboda Artziniega Museoa

ERREDAKZIOA |

Txarriboda antolatuko dute azaroaren 23an Artziniegako Etnografia Museoa. Antzinako usadioak berreskuratuz zati bakoitza zertarako erabiltzen zen azalduko dute. Ekitaldia eguerdian izango da eta txerria erre eta zatituko dute, ondoren txerriaren dastaketa egongo delarik. Ekitaldia musikatuko dute eta bideoak ere eskainiko dituzte.

maritierra
ETXeko ELIKAGAI EKOLOGIKOAK AMURRIO

- Fruitak eta barazkiak
- kontserbak
- Lekaleak
- Esnekiak
- Zerealak, pastak, arrozak
- Ogi eta arrautzak
- Produktu begetarianoak
- Olioak
- Haurtxoentzako jakiak

- Gozokiak, galletak, eztia, marmeladak
- Edariak: ardoa, txakolina, garagardoak...
- Higiene eta norbera-zaintzeko produktuak
- Eta askoz produktu gehiago

GABONETARAKO SASKIAK

Gabon hauetan oparitu etxeko elikagai ekologikoekin osatutako saskia.

Aiara kalea 6, AMURRIO Tlfnoa: 945 891 750 e-maila: maritierra.amurrio@gmail.com

MUSIKAREN ASTEA URDUÑAN

AZAROAK 21, OSTIRALA

23:00 MUGALDE:
STREET MESSENGERS DÚO

00:00 AMNESIA:
PLACTON

AZAROAK 22, LARUNBATA

13:00ETAN
MARRAZKI: JP DÚO
LUPARDIKA: JOHN BOLDUAN
LA CABAÑA: MUSIC BOX
SORTETXE: LA MARA
LLARENA: LUPITA

18:00ETAN
FORU PLAZAN:
GAZTE D.J.'S,
JARRAIAN FLASH MOVE

19:00
MELIS: GABAI

22:00
FORU PLAZAN: JAM SESSIOMA

Jam-sessioma, poteo musikalak, eskolaniak kale-kontzertuak, bandak, rocka, abesbatzak...
ZATOZ HIRIAZ ETA MUSIKAZ GOZATZERA

_sozioekonomia



ITZIAR
Larrazabal
ELA

_Hankamotz

Prestazio Sozialak

Datuek argi adierazten dute egungo egoera sozioekonomikoa zein larria den. Horrenbestez, gizarte-babesaren maila hobetzea ezinbestekoa da.

Alabaina, politikak ez dira helburu horrekin erabakitzen. Kezka nagusia murriztea eta gastuari eustea da, baita gizarteko kolektiborik ahulenen babesari dagokion arlo honetan ere, eta hau ezin da onartu.

Benetako zergatia ekonomikoa bada ere, murrizketak mozorrotzeko "iruzurraren kontrola" eta antzeko izendapenak erabiltzen dituzte; horrela arreata zinezko debaketik aldendu nahi dute, eta prestazioak jasotzen dituztenak kriminalizatzeko eta beren izena zikintzeko kanpainak abiatzen dira botere politiko zein komunikabide nagusietatik, batzutan kutsu xenofobia dute-larik. Nahiago dute ahulei eraso egin.

Murrizte politika hau bere gain hartu dute Eusko Jaur-laritzan azken urteetan izan diren alderdi desberdinek eta eskubide sozialak baino, gastuaren kontrola hobetsi dute.

EAEko prestazioa ekonomikoen estaldura asko hobetu beharra dago, zenbatekoari eta baztertutako kolektiboak aintzat hartzeari dagokionez.

Horretarako Lanbiden jende gehiago behar da prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenei behar bezalako arreata eman ahal izateko.

Lehen urratsa azken urteetan ezarritako murrizketak bertan behera uztea da.

Tubacexen irabaziak bikoiztu dira urteko lehen 9 hilabeteetan

Tubacex multinazionalak Laudion duen lantegiak 25,2 milioi euroko irabaziak izan ditu 2014 urtea hasi zenetik, enpresak berak jakinarazi duenez. Iazko irabaziak baino %96 gehiago da hori, bikoitzaia. Horretaz gain, azken urte honetan 400 milioi euroko salmentak egin eta bere zorra 45 milioitan jaitsi du Tubacexek.



3.722

LANGABETU URRIAN

- 1 LAUDIO 1.868 (%20.7)
- 2 AMURRIO 946 (%17.9)
- 3 AIARA 183 (%11.9)
- 4 ARRANKUDIAGA 50 (%9.7)
- 5 ARTZINIEGA 127 (%4.2)
- 6 OROZKO 106 (%7.9)
- 7 URDUÑA 352 (%16.3)
- 8 OKONDO 73 (%10.4)
- 9 ARAKALDO 7 (%8.6)

LAN ESKAINTZAK

- Galdaragilea, 1. mailako ofiziala (Audio)
- Elkarrizketatzailea (Audio)
- Galdaragile ofiziala (Audio)
- Mantentze-lan elektriko industrialean 1A ofiziala (Audio)

Informazioa:
Amurrio Bidean Toki Garapenerako Elkartea



Enpresa hazitegien azpiegiturak eta espazioak eskualdeko ekintzaileen eskura

Ireki da Laudioko Enpresa Hazitegian bulego bat izateko eskaera egiteko epea. Bederatzi bulego daude guztira, bederatzi enpresa eta ekintzailerentzat. Ez dirudi, baina, ekintzaileentzako garai onak direnik. Amurrio Bidean-en bulego gehienak hutsik egotea da horren seinale.

ERREDAKZIOA I

Txabi Alvarado Bañares

Dena dago prest Laudioko Arza eraikineko Enpresa Hazitegia martxan jar dadin. Laudioko Garapen Agentziak 15 metro karratuko bederatzi bulego prestatu ditu bertan, herriko ekintzaile eta enpresek erabili ditzaten. Abenduaren 2 arte dago irekita bulego horietako bat eskatzeko epea, baina zenbait herritar bertaratu dira jada Arza eraikinera, Enpresa Hazitegiaren nondik norakoan berri jasotzera.

Imanol Robles da hazitegiaren baldintzak kontsultatzera bertaratu denetako bat. Urtebete eman du langabezian eta, lana eskaintzen ez badiote, lana berak sortzeko aukera aztertzen ari da.

Banaketa enpresa bat da buruan duen proiektua, aurretik ere alor horretan lan egin duelako. Dena dela, oraindik ez du erabakia hartu, "baldintza eta xehetasun guztiak kontsultatu behar ditut piszinara salto egin aurretik".

Baldintza determinantea prezioa da Roblesentzat: lehen urtean 12 euro ordaindu beharko dituzte enpresek metro karratu bakoitzeko, eta 15 bigarren urtean. "Pena merezi didan aztertu behar dut", adierazi du ekintzaileak.

Prezioa ere garrantzitsua izanzen Zhura enpresako kideentzat Amurrio Bideanek Refor industrialdean



Prest daude Laudioko Hazitegiko bulegoak, enpresa eta ekintzaileen zain. Argazkia: Aitor Burgoa

rrio Bideanek Refor industrialdean duen hazitegira joan edo ez erabakitzerakoan. Lehen lau urtetan 10,8 euro ordaindu behar dira bertan metro karratu bakoitzeko eta, hortik aurrera, 19 euro.

Baina, prezioaz gain, hazitegian egoteak beste abantaila batzuk dituela azpimarratu du Zhura-ko kide den Igor Garciak: "Enpresa bat abiarazteko leku atsegina da, formazio hitzaldiak egiten dira, azpiegitura eta areto komunak daude..."

Oscar Abadek ere bat egiten du baieztapen horrekin. Xulak izeneko informatika enpresa jarri zuen martxan duela urte eta erdi, eta orduz geroztik Amurrioko hazitegian duen bulegoan egiten du lan. Etxetik ere lan egin zezakeen, baina etxean geratuta "lan-orduak behar beste ez baliatzeko eta arreata galtzeko arriskua" zuela ikusi zuen. Lokal bat alokatzeko aukera ere aztertu zuen, baina "garestiegia" zen.

Bulego gehienak, hutsik

Enpresa sortzeko erraztasunak eman arren, Amurrio Bideaneko hazitegiak dituen 14 bulegoetatik gaur egun 5 baino ez daude beteta. Duela urte batzuk gehiago zeudela esan du Amurrio Bideaneko kide den Marian Martinezek. Batzuk "krisiagatik" joan zirela azaldu du, baina gaineratu du egon direla bulegoa txiki geratu zaielako alde egin dutenak ere. Ikusteke dago Laudioko Hazitegiak zer nolako harrera izango duen.



Igor Garcia
Zhura enpresa

"Prezioaz gain, abantaila gehiago ditu hazitegiak: lekua, formakuntza eskaintzak..."



Imanol Robles Gonzalez
Ekintzailea

"Hazitegi berriaren baldintza guztiak aztertu behar ditut piszinara salto egin aurretik"



Marian Martinez
Amurrio Bidean

"Badaude krisiagatik joan diren enpresak, baina baita hazi egin direlako joan direnak ere"

ZENBAKITAN:

9

bulego izango ditu Laudioko enpresa hazitegiak

%36

Amurrio Bideaneko hazitegiaren erdia baino gutxiago dago beteta

_jendarte

HIESA, asko aldatu den gaixotasuna

Dozenaka heriotz eragin zituen immunodefizientiaren sindromea deritzonak Aiaraldean, heroinaren erruz. Gaur egun, gaixoen profila asko aldatu dela diote adituek. Lehen xiringak konpartitzeagatik izaten ziren kasu gehienak; orain, aldiz, prebentziorik gabeko sexu-harremanengatik.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

HIESAren aurkako borrokaren eguna izango da datorren abenduaren 1a. Egun hori ospatzen den 26. aldia izango da aurten goa, 1988an izan baitzen lehenbizikoa. Ordurako, baina, HIESA mundu osoan zabalduta zegoen, eta Aiaraldean ere bazegoen haren arrastorik.

Ondo gogoratzen ditugu garai horiek Iñaki Moreno erizainak. Garai hartan Laudioko larrialdi zerbitzuan lan egiten zuen, eta HIESA urte haietan eskualdean izan zuten eragina beste fenomeno batekin lotu du: heroinaren kontsumoarekin. "Drogazale gehienek antigorputzak zituzten. Bazeuden sexu harremanen bidez kutsatutakoak ere, baina HIESA zeukatenen %90 xiringak konpartitzeagatik kutsatutako heroinazaleak ziren".

Gaixotasuna 80. hamarkadaren erdialdean garatu zela gaineratu du Morenok, "hamarkadaren hasieran ez genekien gaixotasun hori zertan zetzan, baina handik hiru urte ingurura hasi ziren lehen kasuak agertzen". Lehen gaixoak agertu baino lehen, baina, ez zuten inolako prestakuntzarik jaso larrialdi zerbitzuetako kideek; "ordura arte gaixoak eskularru gabe

behatzengentuen", oroitu du Morenok.

"Gauzak asko aldatu dira"

Laudiokoak soilik ez; Amurrio, Urduña eta Aiaraldeko beste txokoetako heroinazaleak ere bertaratzen ziren larrialdi zerbitzuetara. "Urduñan bereziki gogor jo zuen heroinaren olatuak", oroitu du Morenok, "4000 biztanle inguru bizi baziren, 30 kontsumitzaile edo egongo ziren. Hori proportzionalki asko da". Laudion ere "bereziki gogorra" izan zela gogoan du. Heroinaren itzalak dozenaka pertsona hil zituen eskualdean, gaindosiak medio.

Baina olatu horren buelta etorri zen gero, HIESA jota zeuden pertsona ugariaren heriotzarekin. "Famili askok heriotzaren kausa minbizia zela esaten zuten, HIESA oraindik tabua zelako jendartearen" azaldu du Morenok.

Ordutik hona, baina, gauzak asko aldatu direla argi du erizainak: "Jendeak kontzientzia hartu zuen eta guk gaixotasunaren inguruko informazio zehatza jaso genuen".

Gaur egun prebentziorako eta tratamendurako baliabide askoz

gehiago daude, Morenoren esanetan. Horrekin batera, gaixoaren profila ere aldatu egin da. Sidalava elkarteko kideen esanetan, "orain ematen diren kutsapenen %90 sexu harremanen bidezkoa izaten da". Horregatik, ahulduta da goen arren HIESA oraindik existitzen dela ohartarazi du Morenok, eta kondoia bezalako prebentzio neurriak erabiltzearen beharra azpimarratu du. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, plan estrategiko bat garatu berri du, infekzio berriak %10 murrizteko.

Zer da HIESA?

Giza immuno eskasiaren birusak sistema immunologikoa suntsitzea da. Ondorioz, gorputza gaixotasunen aurrean defentsa gabe uzten du. Birusaren fase garatuenari deitzen zaio HIESA, infekzioa hartu eta 10-15 urtera agertu daitekeena. Minbizia, infekzioak... azaltzen dira fase horretan.

Nola kutsatu daiteke?

HIESA prebentzio neurriak hartu gabe (kondoia) sexu harremanak izaten edo odolaren bidez transmititzen da, ez da listuaren edo azalaren kontaktuaren bidez kutsatzen. HIESAren proba doakoa da eta anbulatorioetan egin daiteke, anonimoki eta aurretiazko zitarik eskatu gabe.



ASIER
Amondo
AEK

_Hankamotz

Euskahaldun!

Zer da Euskahalduna? Euskaldun edo euskalduntzen ari den pertsona. Bere ibilbide indibiduala nahiz ekimen kolektiboen bitartez euskararen alde jarduteko ahalmena bere egiten duena. Zein den euskahaldun baten nahia? Euskahaldundu! Ahaldu gaitzen euskararen eta euskalgintzaren egoeraz. Batu ditzagun nire, zure, haren ahaletan pertsonalak eta biderka dezagun gure ahalmena auzolanean. Egin dezagun eta eragin. Auzolanean eta elkarlanean, lortu ahal dugu euskaraz biziko den herria, euskalakariz osatutako herria. Horixe da Korrikaren eta AEKren nahia. Eta nahia ahal da. Hau guztia, norbanakook auzolanean zein erakundeekin eta instituzioekin batera elkarlanean garatu behar dugu. Dakienak erabiltzeko, eta ez dakienak, ikasteko ahal; ikasteko eta erabiltzeko eskubidea bermatzeko ahal; euskaltegiak ikasle betetzeko ahal, euskal kultura hedatzeko eta euskal hedabideak auzolanean izan behar dugu; euskara taldeak laguntzeko eta euskalgintza babesteko ahal ere. Euskahaldun izan eta euskahaldunduko baikara. Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen" zioen Amets Arzallusek Korrika 18ren amaieran. Gaur eta orain ideia hau berresten dugu: Euskahaldundu gaitzen. Korrika 19k ahalmen metaketa izan nahi du, gutako bakoitzaren eta gu guztion nahiak eta ahalak, auzolanak eta elkarlanak eragingo baitu Euskal Herria, benetan, Euskararen Herria izatea.

UDAZKENEN ESKOLA 201.4
TAILERRAK
AZAROAK 22, LARUNBATA

LAUDIO BASALARRINA EUSKAL TOPAGUNEAN

11:00
HUB IMPACT
3D INPRIMAKIAK

12:30
DRONE HELIKOPTERO
BIDEZKO GRABAZIOAK

AMURRIO KULTUR ETXEAN

11:00
SMARTPHONE
BIDEZKO LABURMETRAIAK

12:30
NOLA SORTU
ALDIZKARI DIGITALAK

Auzolanean Foru Alkartasuna Diputazioa Foru Alkartasuna
 EUSKAL
aiaraldea.com #ume2014 ume.alaraldea.com

RGI-DBE: Eskualdeko 1.125 familiaren azken heldulekua

Igo egin da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenen kopurua Aiaraldean, 2012an baino 305 familia gehiagok jasotzen baitute aurten. Hamaika dira RGI-DBEaren eskatzaileen atzean dauden istorio ta bizipenak.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokio DBE (RGI gazte-leraz) sigla. Bizitzarako oinarrizko beharrianak asetzeko behar bes- teko dirurik jasotzen ez duten fami- liei zuzendutako diru laguntza da, eta Eusko Jaurlaritzak banatzen du, Lanbideren bidez.

Aiaraldean 1.125 familiek jaso- tzen dute RGI-DBE, urriko datuen arabera. Kopurua hazi egin da az- ken urteetan, 2012ko irailean 820 familiak jasotzen baitzuten lagun- tza.

Aldatu egin ez dena emakumez- koen gehiengoa izan da. RGI-DBE jasotzen dutenen %55.4 emaku- mezkoek osatzen baitute eskual- dean. Hortaz gain, jasotzaileen gehiengoak (%88.9) derrigorrez- ko ikasketak bukatuak ditu.

Laguntzen polemika
Azken asteetan polemika piztu da RGI-DBEaren inguruan, Javier

ZENBAKITAN:

305
pertsona gehiagok eskatu dute aurten laguntza duela bi urteko datuekin alderatuta

%63.7
RGI-DBEa jasotzen dutenen erdia baino gehiago Espainiar Estatukoak dira.

Maroto Gasteizko alkateak egin- dako adierazpenen harira. Etorri- berriei "laguntzetatik bizitzea" le- poratu zien Marotok. Datuek kon- trakoa diote, baina: lan eginez ko- tizatzen duten EAEko etorri be- rriak 48.581 direlako, RGI-DBEa jasotzen dutenen (22.093) bikoi- tza baino gehiago.

Aiaraldean, diru-laguntzahori ja- sotzen duten gehiengoa (%63.7) Estatu Espainiarrean jaiotakoa da. Gainera, laguntza jasotzeko EAEn 3 urtez erroldatua egon behar da eskatzailea.

600 eta 900 euro artekoa RGI-DBEaren bidez jaso daitekeen diru kopurua. RGI-DBEaren gaine- ko iruzurra ere aipatu izan du Gas- teizko alkateak, 3.8 milioi euro in- gurukoa baita Jaurlaritzaren abu- ruz. Baina zifra hori txiki geratzen da, adibidez, iruzur fiskalaren zen- bakiekin alderatuz gero: 2000 mi- lioi EAE mailan.

		Jatorria		Adina			
	GUZTIRA	E. Espainiarra	Atzerria	20-34 urte	34-49 urte	50-64 urte	+65 urte
Emakumezkoak	623	407	216	%19.3	%30.3	%34.9	%15.5
Gizonezkoak	502	298	204	%16.4	%35.9	%41	%6.6
	Ikasketak						
	Derrigorrezko hezkuntza	Batxilergoa	Lanbide Heziketa	Unibertsitatea		Daturik ez	
Emakumezkoak	%84.6	39	74	24		96	
Gizonezkoak	%94.3	27	75	28		29	

Urrian Aiaraldean egon diren diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskatzaileak, jatorriaren, sexuaren, adinaren eta ikasketen arabera mailakatuak. OHARRA: Zifrak hurbilketa bat dira, ez dira zifra absolutuak | Iturria: Lanbide

EDURNE (300 EUROKO LAGUNTZA, 2 HILABETEZ)



“Ez da azken unera arte itxaron behar laguntza eskatzeko”

Irailetik dago Edurne diru sarrerak bermatzeko errenta ja- sotzen Amurrion. 300 euro jasotzen ditu DBEtik eta beste 250 etxebizitzaren alokairua ordaintzeko. Senarrari langa- beziaren dirua amaitzean eskatu zuen laguntza.

Laguntza eskatzeko pausoa ematea kostatzen al zitzaizuen?

Gehiegi itxaron nuela esan- go nuke. Langabeziaren dirua bu- katu zitzaidan arte itxaron nuen. Udaleria egoera larri batean joan- da azkarrago jaramon egingo zi- datelakoan, eta dena oso gel- doa doanaren sorpresarekin to- patu nintzen. Nire senarrak lan- gabeziagatik jasotzen zuen dirua zela-eta, uste nuen ezin nuela RGIa eskatu. Ezjakintasun hutsa. Gaur egun jende guztiari esaten diot ez dezala azken momentu- ra arte itxaron, ez dezala beldu- rrik izan, galdetu dezatela, inori desio ez dizkiodan bi hilabete iga- ro baititut.

“Ez da bizitzeko diru bat, bizirauteko baizik. Etorkizun latza ikusten dut”

“Etorkinek duten gauza ona da ez dutela lotsarik behar den guztia galdetzeko, halakoak izan beharko ginateke denok”

Tramiteak gehiegi luzatu zire- lako?

Bai. Dokumentazio guztia ekai- nean entregatu nuen udalean, hurrengo hilabetean alokairua ordaintzeko dirurik ez daukana- ren larritasunarekin. Eta iraile- rako eman zidaten txanda. Gau- zak hala, uda infernu bat izan zen niretzat eta senarrarentzat. Ogi barra bat erosteko dirurik gabe egotera iritsi naiz. Udaleko jende askori eskatu nion laguntza, ne- gar asko egin nuen bertan, bai- na erantzunik ez. Iritsi zen mo-

mentu bat zeinetan ez zen dirua ematea edo ez, pertsona mo- duan tratatua izatea baizik. Hori bai, behin laguntza jasota harrera ona jaso nuen eta laguntza eman zitzaidan.

Ezagutzen duzu zure egoera berean dagoen jenderik?

Ez asko. Nik uste Amurrio- ko jendeak ezkutatu egiten due- la, besteek zer esango dutena- ren beldur.

Eta etorriberriek? Tratu bere- zia jasotzen dutela uste duzu?

Ez. Badut harremana RGIa ja- sotzen duten zenbait etorkinekin, eta denok prozesu bera jarraitu behar dugula uste dut. Etorkinek daukaten gauza ona da ez dutela lotsarik behar den guztia galde- tzeko. Halakoak izan beharko gi- nateke denok.


Duintasunez bizi daiteke RGIa- ren diruarekin?

Ezetz uste dut. Alokairu bat or- daindu behar dut, eta baita elika- dura-pentsio bat ere. Geratzen zaidan dirua ez da duintasunez bi- zitzeko modukoa, ezta gutxia- gorako ere. Berogailua, adibidez, ezin dut piztu, dirurik ez dudala- ko. Horregatik imajinatzen dut seme-alabak dituen pertsona ba- tentzako ere ez dela duina izan- go. Ez da bizitzeko diru bat, txar- to bizirauteko baizik.

Lehen bi hilabeteetan 700 euro jaso izan ditugu errentarako eta 250 alokairua ordaintzen lagun- tzeko, baina nire senarra 55 ur- tetik gorakoentzako laguntza ja- sotzen hasi zenean 700 euro ho- riek 300 euro izatera pasa ziren. Errekurritu egin dugu, uste dugu- lako ez zaigula ordaintzen ari ga- ren elikadura-pentsioa (400 euro ingurukoa) kontuan hartzen ari. Itxaroten gabilta.

Bi hilabete daramazue RGIa ja- sotzen. Nola ikusten dituzue da- tozen hilabeteak?

Oso prekarioak. Senarrak el- karrizketa bat egin berri du, baina ez diote lanik eman, eta 57 urte ditu. Nik ere ez dut lanik topatzen inon. Etorkizun latza ikusten dut, beraz, oso txarra.



RGI-DBEaren jasotzaileen perfil aniztasuna irudikatzeko ESTEBAN MORENO "Tio Bani" artista audioarrak egin duen collagea.

JOSE LUIS (300 EUROKO LAGUNTZA, 4 HILABETEZ)

“Ez dut onartzen jendeak esatea laguntzak kentzera gatozela”



Duela hamar urte etorri zen Jose Luis Perutik. 20 urte baino gehiago eman zituen bere herrian narkotrafikoaren aurkako polizia ikerlari moduan. Hemen, baina, igeltsero moduan aritu da bereziki. Bere emaztearekin eta bi seme alabekin bizi da, Amurrion, eta bere soldataren osagarri gisa jasotzen du 700 euroko laguntza.

Noiztik ari zara RGla jasotzen?

Nire anaia batek gomendatuta etorri nintzen Amurrion. Orduetik hona eraikuntzan egin dut lan, gizarte segurantzaren ekarpena eginaz beti. Alabaina, lan aldetik beherakada bat egon zen eta langabezia egon nintzen hiru urtez. Orain lan txiki bat daukat, eta irabazten dutanaren osagarri gisa jasotzen dut RGla. Gauzak bilatzen jarraitzen dut. Lanbiden soldatzaile izateko ikastaro bat egitekotan nabil, eta beste ikastaro batzuk ere bilatzen ari naiz.

Izan duzu Javier Marotok piztutako polemikaren berri?

Bai, irakurri ditut berak eginiko

adierazpenak. Ez dut onartzen jendeak hona laguntzak kentzera gatozela esatea.

Lana baldin badago nik lan egingen dut. Entzun dut badagoela jendea laguntza jasotzera mugatzen dena, lana bilatu gabe. Baina hori norberaren araberakoa da. Nire kasuan, ez. Nik ez dut laguntza bati lotua egon nahi.

Nahikoa da RGla dirua bizi ahal izateko?

Dagoena da, eta horretaz kontziente izan behar gara. Laguntza hori izateak hilabete bukaerara juxtu juxtu iristeko baina aurrera jarraitzeko beta ematen dizu.

Beste toki batzuetan ere aritu izan zara lanean. Ezberdina da beste zonalde batzuetan dagoen gizarte-estaldura?

Guztiz. Madrilera jaitsi egin nintzeanean lagun batzuek esan zidaten guk hemen gutxienez laguntza jasotzen genuela. Nire herrikide batzuk etxera itzultzen ari dira, ezin dutelako hemen dagoen egoerarekin jarraitu.

Beltz ikusten duzu etorkizuna?

Guk nahi duguna lana da, eta hori da krisia gainditzeko formula bakarra. Lanik gabe, dirurik ez; ez dago familia, etxea... mantentzerik. Agintariekin esku hartu beharko dute krisia gainditzeko.

PILI. (612 EUROKO LAGUNTZA, 4 URTEZ)

“Nire inguruko inork ez du uste egoera honetan nagoenik”



Deuston Turismo ikasketak egin zituen Pili, eta nazioarteko enpresetan aritu da lanean. Krisia iritsi zenean lanik gabe geratu zen, eta langabeziaren dirua bukatzean eskatu zuen RGla laguntza, 612 euro. Lau urte daramatza laguntza jasotzen.

Arazoak izan zenituen RGla eskatzeko tramitea egiterako orduan?

Bai, arazo asko izan nituen. Ate batzuk itxi zitzaizkidan. Ezjakintasun asko zegoen, funtzionarioen artean ere bai. Baina arazo horiek langabeziako dirua eskatzean izan nituen, Amurrioko Lanbideko bulegoetan erraztasunak baino ez nituen izan. Hasieran liskarren bat edo beste izan nuen haiekin, niri dirua iristen ez zitzaidalako eta haiek euren gain hartu zezaketena baino lan gehiago zutelako.

Urtebete inguru iraun zuen dirua ematearen prozesuak, eta denbora tarte horretan familiak lagundu zidan ekonomikoki.

Zer esango zenioke laguntza eskatzera ausartzen ez denari?

Nire burua jarriko nioke adibidetzat. Oso pertsona diskretua naiz, ez daukat pretentsio handirik. Baina isil-isilik ere egin daitezke gauzak. Eta diskrezioa eskatzen baduzu gizarte laguntzaileek ez dizute hutsik egingo. Arazoa Lanbiden agertzearen langa soziala gainditzean datza, adibidez. Alde horretatik nik laguntza psikologikoa jaso behar izan dut, nire autoestimua lurretik zegoelako, eta ez nintzelako salto hori ematera ausartzen.

Zer iritzi duzu Javier Marotok piztutako polemikaren inguruan?

Nik badakit zer den etorkina izatea. Alemanian etorkin izan nintzelako. Alde horretatik, hemen immigranteek duten jendarte-estaldura oso zabala dela ikusten dut, babestuak daude. Nik Alemanian ez dut babes hori jaso.

Lau urte hauetan zehar lan eskaintzarik izan duzu?

Izan ditudan lan eskaintzank eskasak eta higuigarriak izan dira. Oso gogorrak izan diren bi lan elkarrizketa egin ditut,

zeintzuetan harira ez zetozen galderak egin zizkidaten. Baina lana nahi duzunez harrotasuna irentsi behar izaten duzu.

Lanbidek ere eskaini zidan lan bat. Oso positiboa izan zen, baina bi hilabete baino ez zituen iraun.

“Laguntza psikologikoa jaso behar izan nuen laguntza eskatzearen pausoa emateko”

“Izan ditudan lan eskaintzak eskasak eta higuigarriak izan dira”

Nahikoa da laguntzaren dirua duintasunez bizi ahal izateko?

Pertsona bakoitzaren araberakoa da hori. Ni ez nengoen ohitua hilean 612 euroekin bizi-tzera, soldata duin bat neukan. Baina moldatu behar zara. Dagoena da.

Estigma bat dago gainditzeko?

Bai, ezjakintasun asko dago. Erabat ziur nago bizi naizen tokiko inork ez duela inondik inora imajinatuko ni egoera honetan nagoenik. Baina indarrak hartu behar dira aurrera jarraitzeko, duintasunarekin, eta burua tente izanda.

Lau urte daramatzazu laguntza jasotzen. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Nire zikloa bete dut. Beti esaten diot gizarte laguntzaileari ni baino behar gehiago daukan jendea dagoela. Epe motz batean hemendik irtetea espero dut. Ez dut horrela gehiago egon nahi.

_kultura

Amurrioko euskal dantzen historia Aiara Dantza Taldearen ikuskizunean

Amurrioko Antzokian egingo du ikuskizuna Aiara Dantza taldeak. Bi emanaldi egongo dira guztira: azaroaren 29an eta 30ean. Sarrerak Amurrioko Kultur Etxean eskuratu daitezke jada. Dantza Taldearen 30. urteurrenaren azken ekitaldia izango da, eta 30. hamarkadatik gaur egun arte dantzak egin duten ibilbidea izango du ardatz.

ERREDAKZIOA | Lucia Menoyo Martin

Aurten 30.urteurrena ospatzen ari da Aiara Dantza Taldea. Bere koordinatzaile gazteek urtea ekitaldiz josi dute: argazki eta jantzi erakusketa otsailean, euskal ezkontza eta bazkari jendetsua maiatzean eta dantza ikuskizuna abuztuko jaietan. Azken ekitaldi gisa zerbait handia nahi zuten Amurrioko Antzokian 140 dantzari, musikari, bertsolari eta aktore bilduko dituen antzezlanaren prestatzea erabaki zuten.

Ikuskizunaz gozatzeko biauakera izango dira, azaroaren 29an arratsaldeko 20:00etan lehenengo eta hilaren 30ean 19:00etan, bigarrena. Sarrerak Amurrioko Kultura Etxean eskuratu daitezke, 6 eurotan Antzokiko bazkideentzat eta 7 eurotan gainontzeko publikoarentzat.

Dantza bakarrik ez, zuzeneko musika, abesbatzen emanaldia, antzinako grabazioak, antzerkia, bertsoak eta Zuberoko pastorei egindako keinua ere bilduko ditu ikuskizunak.

Taldeko arduradunetarikoa bat den Iraia Aspuru azaldu duenez, aspaldi Amurrioren izan zen "Dantza Lagunak" taldeko dantzari ohiek berriro dantzan ateratzeko gogoia agertu zuten eta hala ikuskizunaren parte izatera pasa ziren. Beste dantza taldeetako kide ohiei ere luzatu zieten gonbitea, baina adinagatik ezetza behar izan zuten. Herrian maila altuko antzokia izateak ere tokia aprobetxatu eta asmo handiko antzezlanaren prestatzeko gogoia piztu zien.

Hasierako asmoa Aiara Dantza Taldearen historiari kontatzea zen. Gero, gidoia zirriborrazteko lana hartu zuen Eneko Aldai dantzariak Amurrioren izan diren gainontzeko dantza taldeetara zabaltea eta Euskal Herriko historiaren testuinguruan kokatzea proposatu zien.

Antzezlanak 30. hamarkadatik gaur egunerarte Amurrioren eta Euskal Herriaren jasotakoak biltzen ditu, betiere dantzaren ikuspuntutik.

Kamuflatutako ikurrinak eta iparraldetik ekarritako diskak

Ikuskizunean, ikurrina debekatua zegoen garaietako pasarte esanguratsuak ezagutu ahal izango dira, "zuri-berdez jantzitako Dantza Lagunak taldeko kideak, ikurrina ka-

Dantza bakarrik ez, zuzeneko musika, koru emanaldia, antzerkia, bertsolaritza eta Zuberoko pastorei eginiko keinua ere barnebilduko ditu ikuskizunak.

muflatua osatzen ikusiko ditugu, adibidez".

Amamen jantziak

Aiara Dantza taldeko kideek azaldu dutenez, ezer gutxi erosi dute antzezlanerako: aktore eta dantzariak eramango dituzten jantziak, salbuespenak salbuespen, aitite-amamen armairuetatik atera dira eta irudimena erabili dute gaur egungo arropen antzinako kutsua emateko.

Ikuskizun handia, erronka

Antzezlanaren egile eta antolatzaileak horrelako ikuskizun handia inoiz prestatu ez duten hogei urte inguruko gazteak dira. Indarra eta ilusioa, ordea, ez zaie falta eta antzezlanaren sortzeko orduan ez diote haien buruari inolako mugarik jarri, betiere zeozer handia egiteko asmotan.

Entseguetan burubelarri sartuta daude eta taldeko kideek airtortu dutenez, urduritasun puntua badu. Emanaldietan, bizpahiru aldiz arropaz aldatu, dantza egin, 5 urteko dantzari txikiak gidatu eta guztientzako errejidorrelana egin, dena aldi berean egin behar izango dutelabadakite, tentsio uneak eta negarrak izango direla ere bai.

Inprobisatzeko gaitasunean sinisten dute, ordea, eta ikuskizun perfektua agian ez, baina ikuskizun polita eskainiko dutela ziurtatzen dute.

IA 100 URTEKO HISTORIA



30. HAMARKADA

Hainbat dantza talde egon ziren garai horretan Amurrioren inguruan: Larrinbeka, Amurrioko Batzokiko edo Baranbio-ko taldeak esaterako.

FRANKISMOA

1936. urtea iritsi eta Frankok estatu kolpea eman zuen Espainian. Emanaldian azalduko den bezala, Amurrioren sortu zen Dantza Lagunak taldeak ere bizi behar izan zituen erreprezioaren ondorioak.

TRANSIZIOA

Frankismo ondorengo garaia ere gogorra izan zen. Emanaldian azalduko den bezala, Ipar Euskal Herriatik ekartzen zituzten askok Hego Euskal Herrian debekatutako hainbat gauza: Ez Dok Amairu musika taldearen biniloak edo ikurrinak esaterako.

GARU EGUN

Aiara Dantza Taldearen oraina zein den ikusi ahal izango da ikuskizunaren zati honetan.



INMA

Roiz
IDAZLEA

_Kamerinoa

Azoka

Bere hotza prestatzen dabil abendua, eta lur honetako kultura eutsiko duen zorua, berriz, Durango. Euskal liburu eta diskoarekin zita: Durangoko Azoka. Aurten go edizioarekin 49 urte daromatza festa horrek argitartxe, musikari, idazle eta publikoaren arteko topaleku izaten. Zita ukaezina da, aspaldidanik datorrena, 1965 urte grisetik, eta edizioz edizio gure herriarentzako ezinbesteko bilakatzea eta gure kulturaren erreferentia izatea lortu du.

Euskal Liburu eta disko azoka, gure azoka, liburu eta diskoen ekoizpen kulturala, protagonistak, irakurleak, sustatzaileak eta editoreak biltzen du. Baina ez hori bakarrik. Zerbait sakonagoa eta oinarritzokoagoa ere: adierazten den herri baten esentzia.

Garai latzak dira hauek. Eta kulturaren esparrua bereziki kaltetua izan da. Horregatik, bakoitzak agian bertan nola joan zaion ikusita kontatu behar du azoka. Baina garrantzitsuenak bilakatu da azoka. Etorriko denari aurre egiteko ezinbesteko zita izango da. Etorriko diren gauzen artean dago Korrika 19n Azokari egitea aurreikusia dagoen omenaldia.



_kultura

_kultur leihoa



Lander Arteaga
ZINEMA

Loreak

Zuzendariak: J. Garaño eta J. M. Goenaga
Aktoreak: Itziar Aizpuru, Nagore Aranburu, Itziar Ituño...

Lore-sortabat, soilik loreak dira. Hori da gure burura etortzen zaiguna lore batzuk ikustean. Baina, zer pentsatuko genuke nondik datozen jakin gabe, astero lore-sorta bat jasoko bagenu?

Idea hau oinarri gisa hartuz, Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak euren bigarren filma martxan jarri dute. Hiru emakumeren istorioa da hau; lore-sorta batzuek goitik behera aldatuko dituzten hiru bizimodu.

Kontatzen zaiguna baino, kontatzen ez dena da garrantzitsua; ikusteaz dena, erakusten denaren parean jarritz. Pertsonaiek esaten dutena, isilpean gordetzen dutena bezain baliotsua izanik.

Hiru emakumeren istorioa izanik, hiru aktore emakumeren izenak azpimarratu behar dira: Itziar Aizpuru, Itziar Ituño eta Nagore Aranburu; lan ikusgarria euren. Aurreko *80 egunean* filman erakutsi bezala, zuzendariak emakumekoei eroso sentitzen dira, barruan daukaten onena ateraz.

Bizitza islatzen duen lan baten aurrean gaude. Baina, adi, ez modu triste batean, baizik eta istorioaren barrenean murgilduko gaituen kontakizun eta eraikuntza batekin. Istorio unibertsal bat, gurea eginda. Lore-sorta batzuen istorioa, bihotzen istorio batean bilakatuta. Loreak, soilik loreak.

Filma datorren azaroan 29an proiektatuko da **Laudioko LHU**ren aretoan, **17:30tan eta 20:00tan**.

Apdema Amurriok egutegia egin du, elkarteko kideen irudia bultzatzeko



Aimara antzerki taldea bi amateur jaialditarako hautatu dute



ERREDAKZIOA I

Amurrioko Aimara antzerki taldea bi amateur jaialditan aritzeko hautatu dute azaroan. Tafallako "Tercer sector" jaialdian egon dira lehendabizi antzeztzen, azaroaren 14an egindako emanaldian. Hilaren 28an, berriz, Rivas Vaciamadrid-eko jaialdian arituko dira. Hurrengo egunean jaialdiaren sari banaketa izango da. Amurrioko taldea Espainiar Estatuko beste bederatzik onpainiarekin batera hautatu dute jaialdian parte hartzeko, aurkeztu diren 119 taldeen artean. Rivas Vaciamadrid-eko zintan *Yo soy la revolución* antzezlan taularatuko dute Aimarakoek. Peter Weiss antzerkigilearen *Marat-Sade* obran oinarritutako lana izango da. Sadeko Markesak zoroetxe batean Frantziako Iraultzaren protagonista izan zen Jean Paul Maraten heriotzari buruzko antzezlan bat nola zuzentzen duen antzeztuko dute Amurriokoek. Antzerki obrabat beste antzerki obra batean sartuta.

Five Corners taldeak bere lehen lana kaleratu du: *Nork bere bidea*

ERREDAKZIOA I

Amurrioko Five Corners taldeak bere lehen diskoa kaleratu du *Nork bere bidea* izenburupean. Aiaraldeko hainbat txokotan jarri dute salgai: Amurrioko Txokogorri, Fano, Bordatxo eta Rubik tabernetan eta Urduñako Mugalden, Marrazkin eta La Unión-en.

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa

Gazte Alaiak elkarteko kideak protagonista dituen egutegi bat kaleratu dute, José Miguel Llano argazkilari amurriarraren laguntzari esker. Egutegia denda parte-hartzaileetan, ostiraleko azokan eta urtarriaren 30ean egingo duten festan egongo da salgai zortzi eurotan. Gazte Alaiak Adimen-ezintasuna duten pertsonentzako elkartea da eta bertan ere familiek, kolaboratzaileek, profesionalek eta bolutarioek parte hartzen dute.



Bi zatitan banatzen dira gaur egun **Laudioko Jaia**k. Argazkia: aiaraldea.com

Anuntxi Arana luiaondoarra Durangoko Azokako Argizaiola saria

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru

Anuntxi Arana antropologoak jasoko du Durangoko Azokan urtero ematen den Argizaiola saria. Hala adierazi zuten atzo Durangoko Azokako antolatzaileek. Saria bertan emango diote.

Gaur egun Angelun (Lapurdi) bizi den arren, Luiaondokoa da Arana. Egin dituen ikerketengatik eta Baionako AEKn eta mugimendu

feministan genero indarkeriaren aurka egindako lanagatik eman go diote saria.

1947 urtean jaio zen Arana. Frantses filologia ikasi zuen, antropologia izan da bere ikerketa eremu nagusia. Euskal Herriko ohiturak eta mitologia izan dira bere lanaren ardatza. 1986an Ipar Euskal Herriko mitologia ikertzen

lehena izan zen Jean Francois Cerquand-en lana berridatzi eta bi liburutan argitaratu zuen, "Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak" izenburuarekin.

Orozkoko mitologia, lan nagusi

Aranaren lan nagusia, baina, Orozkoko mitologiari buruz plaza-ratu zuen doktorego tesia izan zen. 1996an egin zuen, eta Bordeleko Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarrekin zuzendu zuten lana. "Orozkoko Haraneko kondaira mitikoak" jarri zion izena, eta Ipar Euskal Herrian euskaraz defendatu zen lehen tesia izan zen, nahiz eta Aranak azpimarratu duen Jasone Salaberriaren tesia ere garai hartan aurkeztu zela.

1980tik 1992ra egindako ikerketada doktorego tesi horretan Aranak bildu zuena, kondaira mitologikoei eta sinesteei buruz hogeita lau orozkoar elkarriketatu zituen antropologoak. 200 bat kontakizun mitologiko bildu izan zituen horrela, hainbat bertsiotan kontatuak.

Liburu berria bidean

Gaur egun ere idazten dihardu antropologoak. Liburu berri bat prestatzen dabil, hilak, arima herratuak eta mitologia lotuko dituen. Datorren urteko udaberrian argitaratzeko asmoa dauka. Orotara, aipaturiko bi ikerketez gain, beste lau lan argitaratu ditu Aranak: "Bidarraiko Harpeko Saindua: erri-tu eta sineste zaharrak", "Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak", "Mito hurbilak: euskal mitologia jendeen bizitzan" eta "Mitoen bilakatea".

Txani Rodríguez, Manuel Alcántara Fundazioaren jardunaldietan

ERREDAKZIOA I Angela Rico

Manuel Alcántara Fundazioak "Artículo femenino singular: la mujer en la historia del columnismo español" jardunaldiak antolatu ditu. Mintegiak bihar, azaroaren 17an hasiko dira eta abenduaren 1ean eta 15ean jarraituko dute.

Jardunaldietan, 30 emakume inguruk parte hartuko dute hizlari gisa eta haien artean egongo da Txani Rodríguez laudioarra. Hiru egunetan zehar hainbat gai jorratuko dituzte -azaroaren 17an eta abenduaren 15ean Malagako Unibertsitatearen Errektoretza Erakinean eta abenduaren 1ean Malagako Abokatu Eskolan-. Abenduaren 1ean arituko da 17:00etatik 18:15era arte Txani Rodríguez, beste hiru emakumerekin batera "Nuevos medios. Articulismo 2.0." gaiari buruz hizketan. Luna Miguel, Andrea Momotio eta Olga Rodríguez kazetariekin arituko da laudioarra. Mintegietan parte hartzeko, aurretik apuntatu behar zen, baina jadanik leku guztiak beteta daude.



Jon Muñoz
IRAKASLEA

_Lurpetik

Laudioko alkate ahaztua?

II. Errepublikan birritan, 1933 eta 1936an, alkate ardura eduki zuen Florencio Iñarritu frankismoaren erregimenak ahanzturara eraman duen pertsona dela uste dut. Une zailetan izan zen alkate eta erabaki serioak hartu beharrean aurkitu zen, arerio politikoek barkatuko ez zizkietenak.

Bihotzeko osasun arazoak eduki arren ausardiaz jokatu zuen bere agintaldietan, bere sentimendu abertzaleek markatzen ziotena betez. Esaterako 1934ko udan, udal bilera berezi batean Kontzertu Ekonomikoa defendatu zuenean, zeinaren ondorioz atxilotua eta kargutik kendua izan zen.

Fronte Popularraren amnistia legearen ondorioz Florenciok 1936ko udal hauteskundeetan parte hartzeko aukera eduki zuen, irabaziz.

Horrela uztailaren 18ko estatu kolpearen egoerari aurre egin behar izan zion, Laudioako reketek Laudioako Guardia Zibila arduradunari estatu kolpearen alde jartzeko eskatu zitenean. Florenciok Udala babesteko agindu zion, estatu kolpearen aldekoak atxilotuz eta Laudio alde Errepublikarrean jarritz.

1937ko ekainaren 18an tropa frankistak Laudion sartu arte alkatetzan egon zen, gerra egoera kudeatzen. Egun horretatik aurrera erbestean, Iparraldean, egon zen 1940ko hamarkadara arte.


1941ean, Erantzukizun Politikoen tribunalak, kargu politikoak hamabost urtez betetzeko ezintasunera eta bost mila pezetetako zigor batera kondenatu zuen.

_kirola

ESKALADA

“Bost minutu gehiago eduki izan banitu agian lehena geratuko nintzateke”

JOSU ARTETXE (Aiara, 1995) bigarren geratu da Sub-21 kategoriako Euskadiko Boulder Txapelketan. Hiru urte daramatza lehiatzen; baina, norgehiagokan aritu baino, lagun artean arroketatik aritzea nahiago duela dio.



ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Bigarren geratu zinen txapelketan. Pozik edo lehenengo postua ez eskuratzeagatik penatuta?

Egia esan, aukera izan nuen lehen postua eskuratzeko. Nahiko antzera geratu ginen, biok bi bloke egin genituen eta bost minutu gehiago izan banitu agian lehena geratuko nintzateke, hirugarren blokea egiteko zorian nengoen eta. Baina pozik nago. Beti gehiago nahi duzun arren, bigarren postua ondo dago.

Aurten berrikuntza bat sartu dute gainera. Harri bloke batzuk ekarri dituzte eta hala, txapelketa gehiena arroka gainean egin dugu.

Euskadikoa ez da izango jokatu duzun txapelketa bakarra...

Egia esan, txapelketa hau urtero egiten da eta nahi duen orok hartu dezake parte, ez duzu aurretik ezer pasatu behar. Lehia-

tzen hasi nintzenean (duela hiru urte) aurkeztu nintzen txapelketara lehenbiziko aldiz, eta ordutik hona urtero hartu dut parte.

Gaur egun Eibarren entrenatzen duzu. Hor hasi zinen?

Ez, hasieran Amurrión hasi nintzen eta gero Eibarrera ikas-tera joan nintzenez hor hasi nintzen entrenatzen. Baliabide gehiago daude eskaladan aritzeko kanpoan Aiaraldean baino. Amurrioko boulderra ez da oso ona eta, horretaz gain, garestia ere bada. Eibarrekoa hobe eta merkeagoa da.

Dena dela, Aiaraldean eskalatzeko baliabide asko ez egon arren, kirol horretan aritzeko hautua hartu zenuen. Nolatan?

Eskalada egin aurretik saskibaloia egiten nuen eta entrenamendua baino lehen denbora nuenean boulderrera joaten hasi

“Eskaladan nahiko nabarmena da jendearekin duzun tratua garrantzia. Lagun asko ematen dizkizu eskaladak”

“Balibiade gehiago daude eskaladan aritzeko kanpoan Aiaraldean baino”

“Urtero noa Euskadiko txapelketara, eta Frantziara ere joatzen naiz”

nintzen. Saskibaloia utzi eta eskalatzen hasi nintzen azkenean

Aldaketa handia...

Beno, jada baneraman urte bat inguru saskibaloiaz apur bat aspertuta. Horregatik, eskalada probatu eta gustatzen zitzaidala ikusita hori egitea erabaki nuen.

Zer du ba eskaladak?

Lagun artean aritzea. Imajinatzen dut kirol guztiek izango dutela hori, baina eskaladan nahiko nabarmena da jendearekin duzun tratua garrantzia. Azken finean eskaladan jende asko ezagutzen duzu, oso leku ezberdinetakoak; eta hori oso ondo dago. Lagun asko ematen dizkizu eskaladak.

3-4 egun entrenatzen dituzu astean. Nolakoa da zure aste bat eskaladari begira?

Oso aldakorra da. Ikasten ere nabilenez batzuetan ezin nahiz entrenatzera joan, azterketaren bat baldin badaukat. Baina normalean hiru egun igarotzen ditut boulderrean. Gero beste bat erabiltzen dut arroka gainean aritzeko eta asteburua ere bai.

Larunbat eta igandeetan joaten saiatzen nahiz. Eta ezin badut bi egunetan joan larunbatean noa soilik.

Euskadiko Txapelketa pasata, erronka berririk baduzu buruan?

Txapelketa mailan abenduaren 13an soka modalitateko Euskal Herriko txapelketa dagoela uste dut. Bertara joateko asmoa daukat, ea zerbait egiterik dudan. Baina bestela ere ez dut bestelako txapelketaren batean parte hartzeko asmorik.

Ez duzu asko lehiatzen, beraz?

Ez. Urtero noa Euskal Herriko txapelketara eta normalean Frantziara ere joatean naiz, bertako txapelketa batera. Duela hilabete eta erdi izan da lehiaketa hori. Baina bestela ez dut asko lehiatzen, ez.

Lehiatzeko ez bada, zertarako entrenatu orduan horrenbeste?

Arrokan aritu ahal izateko. Arroka gainean zabiltzanean zure kontura zoaz. Bertara joan eta lagunekin eskalatzen duzu, inorekin lehiatu gabe. Eta hori ondo dago.



Iñaki

Isasi

TXIRRINDULARIA

_Helmugari so

Ziklokrosaren txanda

Errepideko denboraldia amaituta, ziklokrosaren txanda ailegatu da neguko hilabete hauetan. Euskal Herrian ohitura handiko kirola izan da ziklokrossa. Hala ere, azken urte hauetan, ez dago bere garai onenean. Bi edo hiru txirrindulari, maila nabarmenean aritzen dira Euskal Herri eta Espainia mailan, baina atzerrira joaten direnean nekez egiten dute lasterketa ona.

Eta horrela jarraituko du egoerak, hemen gauzak aldatzen ez diren bitartean. Maila txikietan aritzen diren gazte ugari dago ziklokrossean. Horietako batzuk, itxura oso onarekin. Baina 23 urtez azpiko mailara ailegatzen direnean akabo dena. Handik aurrera, begiak errepidean ipintzen dituzte eta ziklokrossa alde batera uzten dute gehienek. Batzuk, beraiek aukeratuta eta beste batzuk, eta honek ematen dit pena, beraien taldeen-egatik behartuta. Etorkizun hobeak izan du beti errepideak, nahiz eta gaur egun etorkizun iluna duen. Horregaitik, orain arte behintzat, normala izan da gazteek bertan ipintzea euren helburuak. Baina nik ez dut uste ziklokrossak kalte egiten dionik errepidean ondo ibiltzeari. Denboraldia ondo antolatuta, bi modalitateetan maila ona erakutsi daiteke. Are gehiago, ziklokrossa errepiderako prestakuntza ona dela esango nuke nik.

Gaur egungo ziklokros-seko munduko txapelduna, maila oso onean dabil errepidean, munduko txirrindulari onenen artean. Ez du horrek ezer esan nahi?

_kirola

MENDIZALETASUNA:

Mendi eta naturaren inguruko jardunaldiak, azaroaren 22an

Azaroaren 22an izango da Mendiko Lagunak antolatutako Mendiari eta naturari buruzko jardunaldien azken zita. Jose Mijaresek Norbegiako Newton mendira igotzera koan bizitako abentura kontatuko du, 19:00etan Katekesi aretoan. Argazki eta bideo laburren sari bana-keta ere egingo dute bertan.



ARETO FUTBOLA:

Hiru garaipen jarraian lortu ditu C.D Uxo Futsalek

C.D Uxo Futsal areto futboleko klubeko hiru taldeek euren aurkari irabaztea lortu zuten iragan asteburuan. Lehen taldeak 6 gol sartu zizkion Eskoriatza KE-ri. B taldeak 5 gol Gometza taldeari eta C taldeak, berriz, bi gol EL Pregóni. Hiru taldeek euren kategorietako lehenak izaten jarraitzen dute hala.

ZIKLOKROSSA:

Aiarako Txirrindulari Elkarteak garaipen ugari lortu ditu CX Arbulton

Arbulton jokaturako III. Ziklokross txapelketan hainbat garaipen lortu dituzte SC Aiarako txirrindulariek. Iosu Isasi M-40 modalitateko Arabako Txapeladuna izatea lortu zuen. Iñaki Isasik, berriz, garaipena lortu zuen elite mailan. Julen Latorrek junior mailan, eta Luisa Ibarrola sarraitoarra, berriz, kadete mailan.



Aiaraldeko hainbat lagun hurbildu dira Gipuzkoara asteburuan /Guaixe

Aiaraldeko korrikalari askok hartu dute parte Behobia-Donostian

ERREDAKZIOA | Xabi Zalbide

Eskualdeko 75 lagun aritu ziren igandean Euskal Herriko oinezko lasterketarik jendetsuenean. Josu Apraiz eta Mari Carmen San Juan audioarrak izan dira haien artean azkarrenak.

Pasa den igandean atletismo-ko euskal proba klasikoaren artean klasikoena eta herrikoiena jokatu zen: Irungo Behobia auzoa eta Donostiako erdigunearen arteko 20 kilometroak zeharkatzen dituen Behobia-Donostia lasterketa.

Aurtengoa edizio berezia izan da gainera, probak bere 50. urteurrenabete duelako. Izena eman zuten 30.700 korrikalarietatik 26.427k lortu zuten amaitzea, tartean gure eskualdeko 75 lagunek.

Parte hartu zuten aiaralदारren artean adin askotako eta maila askotako gizon-emakumeak topatu ditzaizkegu eta, denetan azkarrenak, Audioko Josu Apraiz (1:10:51) eta Mari Carmen San Juan (1:34:01). Josuarentzat zazpigarren Behobia izanda, 2007tik denetan izan baita, ia zokoa izan ezik, eta gainera bere markarik onena berdintzea lortu du. Adierazi duenez, berarentzat "lasterketa ikusgarria da, bai antolakuntzagatik bai dagoen giroagatik; izan ere, kaleak ikusle berriak daude eta etengabe animatzen dute". Berezikinabarmentzen

du Errenteriatik pasatzean zegoen giroa, "oilo-ipurdi jartzeko modukoa", bere ustez.

Hala uste du Isabel Balado amurriarrak ere; "lasterketan zehar dagoen animazioa ikaragarria da", esan dio Aiaraldeari, eta horregatik hain zuzen "merezi du parte hartzea". Isabelen ustez, proba oso ondo antolatua egon arren "jatekoa eta edatekoa apur bat eskasa da, inskripzioa egiteko ordaintzen dena ikusita. Egiten duen laugarren aldia izan da berarentzat eta 1:44:45eko marka egitea lortu du.

Isabel zein Josu eskarmentu handikoak badira Behobia-Donostian, esperientzia ezberdina izanda Axular Etxeberrira audioarrarentzat: "duela 10 urte parte hartu banuen ere lehenengo aldia bultzatzen bezala bizi izan dut", adierazi digu. Bere ustez kirola baino zerbait gehiago ere bada Behobia, "aitzakia polita asteburuko plana egiteko, aurreko egunetik joanda eta lasterketa ostean familia edo lagunekin bazkaltzeko".

Informazioa:

Aiaraldeko korrikalarien sailkapenak sarean ikusgai:



ELKARGOKO BAZKIDEENTZAKO ESKAINTZAK AIARALDEA HERRI ELKARGOA



ELKAR-ekin TOKIKO MERKATARITZA EUSKARAZ SUSTATU

DISKA GOGORRA 1 TB
HDD transcend 25" USB 3.0

67 € **%25**

EUSKO PC Informatika zerbitzuak
Zumalakarregi etorbidea 47 LAUDIO
Tel. 946087310

DONUTXAK
ESKUZ EGINDAKO JANTZIAK

25.5 € **%15**

GOROB! Eskuz egindako diseinua
ARRANKUDIAGA, Tel. 619 23 95 80
gorobi.blogspot.com

ILE LUZAPENAK
ILE NATURALAREKIN

%20

ENEAN ILEPAINDEGIA
Bela kalea 6, atzekaldea, LAUDIO
Tel. 94 643 52 60

FOREX KOADROA
personalizatua 50x70cm, 5mm

%30 **27 €**

ADI ZENTRO GRAFIKOA
Maskunbeir Kalea, 10. AMURRIO,
Araba, Tel. 945 89 08 46

AUTO KONPONKETAK
Errebitsioak, konponketak...

%15

HYUNDAI-ESKA
Gardea Kalea, 4, LAUDIO, Araba
Tel. 946 72 84 46

395 GARA

1000
LAGUNEN
ENERGIA
BEHAR DUGU

ELKARGOKO BAZKIDE ZATEAK ONURAK DITU IZAN ZAITEZ ZU ERE BAZKIDE



BATU ZURE ENERGIA EUSKARAREN ELKARGOAN

© DENBORA EMAN € DIRUA EMAN

DEI GAITZAZU ETA AZALDUKO DIZUGU NOLA EGIN BAZKIDE **688 647 942**
EDO EGIN EZAZU ZUK WEB-GUNE HONETAN:
elkargoa.aiaraldea.com

AIARALDEA HERRI ELKARGOA

Aiaraldea Herri Elkargoko bazkide izateko diru edo denbora ekarpen bat egin duten pertsonak gorago zehazten diren saltoki horietako eskaintzak probestu ahal izango dituzte.

Nola eskuratu eskaintza

Eskaintza iragarri duen saltokira joan eta Elkargoko bazkide txartela erakustea nahikoa izango da zehaztutako produktu edo zerbitzuen deskontua jasotzeko.

Epea

Hemen argitaratutako eskaintzak probesteko epea Abenduaren 02an amaituko da. Hurrengo hamabostaldian, egunkariaren argitaratzearekin batera eskaintza berriak izango dira eskuragarri.

Eskaintzen inguruko informazio zehatzagoa topatuko duzu elkargoa.aiaraldea.com web-gunean.



_Herriko plaza

_agurrak **BIDALI ZUREA!** Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com helbidera abenduaren 14a baino lehen.



Igor
Zorionak gure pototo!
Muxu eta besarkada handi-handi bana!
Agoantzen zaituztenak



Saioa eta Ander
Zorionak txikitxus!!! 3 urte jada, jarraitu horrela gure egunak pozten. Asko maite zaituztegu.
Osaba eta izeko.



Laia
Unibertsoko marisorgintxo ederrak jada 6 urte bete ditu!! Zorionak Laia!!!! Maite zaitugu!!
Ekhi, Aitatxo ta Amatxo



Izar eta Aiur
Neskato eta mutiko handiak egin zarete. Hiru urte!!! Zorionak!! Marrubita txokolatezko muxutxuak!
Etxeokoe



Etxeko altxorra
Zorionak laztana!! Segimundutik irriak botatzen! Maite zaitugu!
Ama eta aita.

_#sexgatik (:><:)

Aniztasun funtzionala duten pertsonak harreman sexualak praktikatzeko gai dira? (Eneko)

Aniztasun funtzionala entzutean gure burua ireki eta ezaugarri ezberdinak dituzten pertsonekin topo egingo dugu: aniztasun funtzionala fisiko edota intelektuala dutenak, gorak, autistak, disfemikoak, ikusmen urritasuna dutenak, beste hainbaten artean. Pertsona hauek guztiak eskubideak dituzte eta euren behar sexualak ere aldarrikatu behar dira. Sexualitatea irakatsi digutena baino askoz ere zabalagoa da. Kontuan hartu aniztasun funtzionala duten pertsonak ez direla pertsona asexualak, gainerakoak bezala euren beharrak dituzte, eta horien artean sexualak ere bai. Beraz, euren sexualitatea guztiona bezala gara daiteke. Horretarako, aurreiritzi pilo bat alde batera utzi behar ditugu, benetako mugak gure buruan baitaude. Euren gorputzak plazererako bide ere bihur daitezke, dituzten desio erotikoko gauzatuz. Genitalak ahaztuta, baztertuz, harremantzeko beste modu batzuk topatu ditzakegu, plazeraren intentsitateak areagotuz. Plazera ez dago hankartean soilik. Gai sakontzeko, Camara Oscura, The Sessions eta Realidades ajenas filmak ikus ditzakezu. Eta Yes, we fuck! dokumentalaren web orrialdea bisitatu. Azken finean, pertsonak gara guztiok funtzionatzeko modu bat daukagu, ez duzu uste?

[Bidali zure galdera sexgatik@aiaraldea.com helbidera!] **Julene Onaindia Garcia**

_denborapasak

		Hiru bider hiru	Joan den urtea	Zaku txikia	Andeetako musika tresna
		Lakioak, tranpak	Etorkizunearan	Heldu den	
Ahal du					
Galdetzaila bat				Errepikatuz, neska ergel	
				Iragan gauean	
IRUDIAN	Umorezko kolpe	Automata			
Nasaia, ez estua	Aparrak	Irain			
			Garai, aldi		Kaltzio oxidoa, kisua
			Bokala		
Letoniako hiriburuak					
Bi zati bi					
		Izenaren hasieran	Egoskin mota		Bokala
		Areagotzeko atzizkia	Burdinola		Eguneroko jaki
Ohitura				Galdetzaila bat	
Mendazako kontzejua				Euskal Herria	
			Egile atzizkia		Germanioaren ikurra
			1000		Bokala
IRUDIAN (jarraitzen du)		IRUDIAN (jarraitzen du)			

❖ Aiarako foruen barnean zeuden herrietako ordezkarien bilgunea XIV. mendetik aurrera

Erantzuna ikusteko <https://www.aiaraldea.com/users/denborapasak>

_horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18

Batzuk besteak baino zailtasun handiagoarekin hazten dira, beste askok hainbat gauza burutzeko gaitasun gehiago dituzte, baina ez dira gaitasun faltak horiek gure burua mugatzen dutenak, norberaren erabakiak baizik.



HERENSUGE

03.21-04.20

Ona edo txarra, zuria edo beltza. Pertsonak ez dira onak edo txarrak. Denok daukagu argitasun eta iluntasun puska bat, baina gure eskuetan dago egokiagoa zaigun aldea garatzea.



BASAJAUN

05.21 - 06.20

Kritikak ez ditugu gustoko, norberaren akatsak gogoraraztea gorroto dugu eta gogorarazten dizkiguten horiek barkatzea zaila egiten zaigu. Barkamen bat oparitzea errazagoa da hutsegite baten aurrean.



GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Ametzak jarraitzea da gure artean gomendatzen duguna. Ametsek igortzen duten mezua zein den kontuan hartu beharra dago. Hala ere, euren magiak luratzen ustea arriskutsua da bizitza egunero bizitzea ahaztuko baitugu horrela. Arreta jarri!



AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Heriotzaren beldur zara. Bakarrik hiltzea da zabaldua dagoen beldur handienetarikoa bat. Ez izan beldurrik txarragoa baita izaki bakarti eta zoriongabea sentitzera bultzatzen zaituen edonorrekin bukatzea.



ZIRIPOT

11.23 - 12.20

Bueltak eta bueltak ematen diotzu zure buruari, zure buruan dauden arazoei. Denbora gehiago ematen duzu pentsamendu horien gainean, edota hauek kontatzen, konponbide ari-na ematen saiatzea baino, buruhaustea arindu itzazu!



GALTZAGORRIAK

02.19-03.20

Zalantza hutsa zara. Besteek zure arazoak konpontzen uzteko ohitura txarra daukazu. Bizitza zoriontsu bat nahi izanez gero, zure bidea zure helburuarekin lotu ezazu, ez objektu edota pertsona batekin, ausarta izan zure buruaz harro sentituz!



LAMIA

04.21 - 05.20

Azkenaldi honetan zailtasun handiak izan dituzu zure bizitzan, lan gogorra egin duzu egunero, baina horrelakoa izan ohi da bizitza, ton-torretik ikusi daiteke beste hainbat tontor gelditzen direla igotzeko.



BASANDERE

06.21 - 07.20

Horrela jarraituta ez zara inoiz pozik egongo. Inguruko gauzetan zoriontasuna bilatzen duzu beti, zoriontasun hori ez dator kanpoko gauzetatik, barneko sentimenduetatik baizik. Zure baitan dago zoriontasuna, maite ezazu zure burua.



JENTILAK

08.22 - 09.22

Sentimenduak kanporatzen ikasi beharko zenuke, buruan daukazun hori besteekin konpartitzen, sufri-mendua zure baitan gordetzeak arrisku handia dauka, horrela jarraituta zure barneak jango ditu, eta bihotz handi hori suntsitzera eramango zaitu.



MARI

10.23 - 11.22

Harrotasun hori aldatzeko momentua heldu da, harrotasuna aldatzea ezinezkoa zaizula diozu, zure izaeraren parte dela diozu. Bizitza guztian dagoen lan gogor eta garrantzitsuena gure buruarengan egiten duguna da baina...egin beharrekoea!



SUGAAR

12.20 - 01.19

Pertsona batenganako maitasuna sentitzea zuretzako akatsak diren horietako asko onartzea da. Bikote bateko partaideak moldatu behar dira euren artean, errespeta eta tartek sendotuz. Irizkiak adierazi baina hauek inposatu barik.

_irakurlearen txokoa

_agenda

11.20 OSTEGUNA

18:30 AMURRIO **MULTIMEDIA ESKOLA** Musika taldeentzako multimedia plataformak Amurrioko AEK

18:30 LUIAONDO **HITZALDI IKASTAROA** Pelbisa indartzeko beharra Gizarte Etxea

19:30 OKONDO **MENDI JARDUNALDIAK** Gorbeiar buruzko solasaldia San Romaneko Kultur Etxea

20:00 LAUDIO **BERTXIOSAIO MUSIKATUA** Miren Amuriza, Ander Solozabal, Oihana Bartra Zubiaur kalea

11.21 **OSTIRALA**

19:00 AMURRIO **NATURA JARDUNALDIAK** Kantauriar hartza Katekesi Aretoa

19:00 LAUDIO **MULTIMEDIA ESKOLA** Musika, umorea eta multimedia solasaldia Basalarrina

19:30 OROZKO **UDAL DEIALDIA** Gazteen lonjak Donibane Aretoa

11.22 **LARUNBATA**

11:00 MADARIA **900. URTEURRENA** Bisita gidatua Juanjo Hidaigoren eskutik

11:00 LAUDIO **IKASTAROA** Gastronomian urrats txikiak Azoka Plaza

11:00 AMURRIO **MULTIMEDIA ESKOLA** Aldizkari digitala sortu eta Smartphone bidezko filme laburrak Kultur Etxea

12:00 MADARIA **900. URTEURRENA** David Peterson-en hitzaldia

12:00 OKONDO **MENDI JARDUNALDIAK** Okondoren historia ezkutua, Felix Muguruza

12:00 ARTZINIEGA **OHITURATxarriboda** Etnografia Museoa

12:00 OROZKO **MIKOLOGIA** Urtzi Vera argazkilararen hitzaldia Orozko Museoa

11:00 LAUDIO **MULTIMEDIA ESKOLA** 3D inprimagailuak eta Drone helikoptero bidezko grabaketak Basalarrina

19:00 AMURRIO **NATURA JARDUNALDIAK** Svalbard Katekesi Aretoa

20:30 LAUDIO **SANTA LUZIA ABESBATZA** Udazkeneko kontzertua Done Petri Eliza

11.23 **IGANDEA**

08:00 OKONDO **MENDI IBILALDIA** III. Okondo Harana martxa Igerilekueetatik abiatuta

13:00 MADARIA **900. URTEURRENA** Dantza eta musika ikuskizuna eta luntxa

11.24 **ASTELEHENA**

18:00 LAUDIO **KULTURARTEKOTASUNA** Laudiotik mundura, gastronomia tailerra Zubiko Etxea

11.25 ASTEARTEA

17:00 AMURRIO **INTERNAZIONALISMOA** Venezuelen ibilitako brigadisten hitzaldia Gaztetxea

ESKUALDE GUZTIAN **EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAK GABEKO EGUNA** (Ikus egitaraua 3. orrian)

11.26 ASTEAZKENA

18:30 LAUDIO **INTERNAZIONALISMOA** Gaztela-Aragoin egondako brigadisten hitzaldia Gaztetxea

11.27 **OSTEGUNA**

18:30 URDUÑA **INTERNAZIOALISMOA** Palestinan ibilitako brigadisten hitzaldia Gaztetxea

11.29 LARUNBATA

13:30 ARETA **MOBILIZAZIOA** Pablo etxean nahi zaitugu Parkean

20:00 AMURRIO **AIARA DANTZA TALDEA** Aunitz urtez dantza ikuskizuna Amurrio Antzokia

20:00 LAUDIO **KONTZERTUA** Groovy Peppers, Red Hot Chili Peppers-en abestiak Drumgorri Aretoa, 6 euro

LAUDIOKO GAZTE EGUNA



11.22 **LARUNBATA** 11:00 **Hasiera ekitaldia** Zarpantzarrek Herri azoka alternatiboa Umeentzako jolasak puzgarria tailerrak Boulder Buztingintza Serigrafia

13:30 **Kalejira** Kun-kun batukadaren eskutik

14:30 **Bazkari herrikoa** Bazkalostean... bakarlariak: Perdido entre ilusiones eta Alperrikako bizien jabe

Ondoren... Gazte jolasak 19:30ean **Kalejira** aldarrikatzailea L.B.F-ren eskutik .Horren ostean ekitaldia Lamuzan eta poteo piko-teo Gaztetxean

22:00 **Kontzertuak** **Gaztetxean:** **Esne Potak, Enkore 3gabe2**

11.30 IGANDEA

08:30 SARATXO **MENDI IBILALDIA** XII. Mendi martxa Herriko Plaza

14:30 OROZKO **DISPERTSIOA SALATUZ** Bazkaria eta ondoren ekitaldia

19:00 AMURRIO **AIARA DANTZA TALDEA** Aunitz urtez dantza ikuskizuna Amurrio Antzokia

ZINEMA

11.22 **LARUNBATA** **"LA HIJA DEL CHATARRERO"** LAUDIOKO LHUI 17:30ean eta 20:00ean (2€)

11.23 **IGANDEA** **"GUARDIANES DE LA GALAXIA"** OROZKOKO DONIBANE ARETOA 16:30ean

"HURRAK ETA LAPURRAK" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 16:30ean (3,60 €)

"YUGO Y LALA" LAUDIOKO LHUI 17:30ean (2€)

"VIOLETTE" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 19:00etan

"LOREAK" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80€)

11.24 **ASTELEHENA** **"LOREAK"** AMURRIO ANTZOKIA 20:00eTan (3,60€)



11.25 **ASTEARTEA** **"AGUA"** AMURRIO ANTZOKIA 20:00eTan

11.29 **LARUNBATA** **"AGUA"** DONIBANE ARETOA 18:00etan

"LOREAK" LAUDIOKO LHUI 17:30ean eta 20:00etan (2€)

11.30 **IGANDEA** **"MALEFICA"** OROZKOKO DONIBANE ARETOA 16:30ean

"EN EL OJO DE LA TORMENTA" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 19:00etan



gasteiz

AZA 27 // **PERE UBU**

20:30 (15 / 18 €)

AZA 28 // **MASTERS OF ROCK** Tribute fest AC/DC • METALLICA • GUNS AND ROSES

20:00 (10 / 13 €)

ABE 5 // **HARRESIAN ZULO**

21:00 (5 € CD gabe / 8 € • CD)

ABE 7 // **CRUCIFIED BARBARA** + 13 left to die

20:30 (13 / 18 €)

ABE 12 // **KASHBAD** + Estricalla KOPRIKAnen aukazpena

20:00 (8 / 10 €)

Andre Maria Zuriaren Koratzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu



higiezen agentzia

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: Kontsultatzeke
84 m², 3 logela, 2 bainugela, kanpoaldera, igogailua, terraza, altzariz hornitua, trastelekua, garajea, 2010.urteko eraikuntza.
Eref.: 167.538



ATXIKITAKO ETXEA SALGAI ARTZINIEGAN
Prezioa: 210.000 €
240 m², 4 logela, 2 bainugela, komuna, egongela terraza eta lorategiarekin, garajea, oso argitsua, negoziagarria.
Eref.: 167.537

PISUA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 225.000 €
90 m², 3 logela, 2 bainugela, terraza lorategiarekin, kanpoaldera, altzariz hornitua, igogailua, trastelekua, garajea.
Eref.: 167.478



PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 120.000 €
80 m², 3 logela, bainugela, sukalde amerikarra eta kanpoaldera, balkoia eta terraza, berogailua.
Eref.: 167.534

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 178.000 €
75 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldera, bi terraza, igogailua, trastelekua, garajea hautazkoa.
Eref.: 167.264

ATXIKITAKO LURSAILA SALGAI LAUDION
Prezioa: 100.000 €
324 m²-ko lursaila, 380 m²-ko eraikigarritasun maximoa etxebizitzan, quztiz urbanizatuta.
Eref.: 167.525

PISUA SALGAI ARRANKUDIAGAN
Prezioa: 145.000 €
65 m², 2 logela, eraberritutako sukalde eta bainugela, kanpoaldera, igogailua, altzariz hornitua.
Eref.: 167.227

BASERRIA SALGAI AIARAN
Prezioa: 90.000 €
250 m², 2 logela, bainugela, trastelekua, garajea, txokoa egiteko aukera, eraberritzeko.
Eref.: 148.937

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_ezin galdu



BERTXIOSAIO MUSIKATUA: Aiaraldea Komunikazio Leioak bertsolaritza, musika eta teknologia berriak uztartuko ditu Miren Amuriza, Ander Solozabal, Oihana Bartra eta Igor Arzuagari esker. Sare sozialen bitartez parte hartu dezake nahi duenak.



TXARRIBODA: Artziniegako Etnografia Museoa bere ateak irekiko ditu antzinako ohiturak lantzeko, txerriboda hain zuzen. Txerrikiak egin ez ezik animalien zati bakoitza zertarako erabiltzen zen baserrian azalduko dute. Odolosteak jateko aukera ere emango dute.



Ainhoa
Comas
BERTSOLARIA

_Leihotik

Ostiral iluntzeak

Batzuetan, ostiral iluntzeetan, parkeak umeen oihu eta barre axolagabeak xuxurlatzen dizkit lehioen hutsuneetan barrena, belarrez zikindutako prakak irri batez oroitz. Noiz utzi nion zebrabideetako lerro beltza saltatzeari?

Ohartzerako, noizbait betetzea amesten genituen agenda horiek bete egin dira, bazkalosteko marrazki bizidunak ikusteko denbora ere lapurtzen diguten planekin. Orain munstroak ez dira irteten lotara goazenean, iratzargailuak erakartzen baititu, dituenak baino ordu gehiagoko egun bat behar dugun bakoitzean. Zein argi daukagun nahi duguna umetan, eta zein azkar erakusten diguten nahi dugun horrek produktiboa izan behar duela, pasiorik gabe egiten bada ere. Beharbada, nagusiak egin ahala ume izaten erakutsi beharko ligu-kete, berandu ez bada behintzat seriotasunak ematen omen duen elegantziaren truke saldu dugun espontanitatea berreskuratzeko. Ez dagoela txarto noizean behin nahi duguna egitea.

Hodeiek animalia forma edukitzeari utzi diote, eta errepedeak prezko pausoz zeharkatzen ditugu, aurrera begira, burua egin beharreko mila gauzetan daukagula. Baina nora goaz?

Eduardo Iturralde Gonzalez

“Epaile bat talde jakin bateko zalea ezin daitekeela izan esatea txorakeria galanta da”

EDUARDO ITURRALDE GONZALEZ (Arrankudiaga-Zollo, 1967) marka guztiak apurtu ditu nazioarteko futbol epaile gisa eta orain bere esperientziari esker hedabidetan ospea handia lortu du jokaldi eztabaidagarriak azalduz.

ERREDAKZIOA | Gentza Garcia Mendieta

Zure showman aurpegia erakusteko orain, epaitzen zenuenean baino askatasun gehiago sentitzen al duzu?

Ez nuke hori esango, beti sentitu izan dut askatasun hori baina orain lasaiago sentitzen naiz, ez daukat lehen besteko erantzukizunik eta horrek gogoko duzunaren inguruan askatasunez hitz egiteko aukera eskaintzen dit.

Epaile lanaren normalizazio prozesuan aritu zara azkenaldian, ezta?

Egia esan beti, hasieratik bertatik, saiatu izan naiz epaileon lan zaila arruntago bilakatzen edo behintzat daukan zailtasun hori ikustarazten baina ez da batere erraza.

Epaile gertuagoaren lana egiten saiatzen zara akaso?

Hori da, ohiko epailearen lana zaharkitua geratu dela uste dut, norgehiagokaren jazoera bat ala bestea seinalatzea ez da aski arbi-

tro lana behar bezala betetzeko, edonork egin lezake lan hori. Bestalde, fundamentuzko azalpenak ematea ez da askotan hain erraza, are gutxiago lehia zelai barrutik eta ez telebistako pantailatik jarraituz gero. Horretan ezberdindu beharko ginateke gu eskaile-
ran maila bat igoz.

Zure esana da epaile askok Real Madril dutela gustuko, nola hartu dute adierazpena lanean daudenean?

Bakoitzak jakingo du zer pentsatu edo esan nahi duen, nik egi hori argitaratu besterik ez nuen egin, gehienak hala dira.

Eta Iturralde Gonzalez zein taldekoa da?

Betidanik esan dut ni Bilbokoa izanda Athletic dela nire taldea, normala denez. Oso ohikoa da entzutea epaile bat ezin daitekeela talde jakin bateko zalea izan baina txorakeri galanta da hori nire ustez.

Epaile moduan hainbat marka hautsi zenituen txartel eta penalti arloetan, aurkezle moduan tankerako xederik ba al duzu?

Ez inondik inora, nire benetako nahia jendeari gure lana zer nolakoa den erakustea da.

Badirudi zaleek pilotu automatikoa bezala daukatela sartuta epaileak txarrak direla eta aurreiritzi horiei amaiera ematea hartzen dut nire lan zaila bezala.

Amaitzeko, zer izan da zuretzat epaile izana?

Amets hutsa.

Gaztetan erregional mailan epaitzea kristona zen, gero Lehengo Mailan, ostean nazioartean... eta maila guzti horiek

betetzeko aukera sorta aurkeztu izan zait urte hauetan zehar beraz beldurrik gabe esan dezaket nire ametsa guztiz bete dudala nire ibilbidean zehar.



**UMOREA,
MUSIKA ETA MULTIMEDIA
EUSKARAREN PIZGARRI**

UDAZKENENKO MULTIMEDIA ESKOLA 2014
SOLASALDIA AZAROAK 21, OSTIRALA 19:00etan
LAUDIOKO BASALARRINA EUSKAL TOPAGUNEAN

ZURIÑE HIDALGO
Hesial
JON GOTZON

g6zte



aiaraldea.com #ume2014 ume.aiaraldea.com